Guztira 127.361 m<sup>2</sup> inguruko azalera du. Plan Orokor hone-tako «5. Planoak» dokumentuko «II.1.4 Lurzoruaren sailka-pena. Hirigintza Esparruen Mugaketa (hiri-ingurunea)» pla-noan islatzen da esparruaren mugaketa.

II. ANTOLAMENDU IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK

Esparruan askotariko errealitateak daude: Bizitegi-eraikinak, ekonomia-jardueretarako eraikinak, instalazio publikoak –ferialekua, osasun-etxea, eta abar–, Elosegi parkea.

Esparruaren hiri-berritze eta hiri-birkualifikazio globala planteatzen da, besteak beste honako irizpide eta helburu oro-kor hauen arabera:

— Trenbide-sarearen bi aldeen arteko konexioak hobetzea, hirigunearen eta esparruaren eta bertan dauden eta aurreikusten diren garapenen komunikazio egokia lortzearen.

Arlo horretan esku hartzeko bi aukera proposatu dira.

Lehenak trenbide-sarea ahalik eta tarterik handienez lurperatzea dakar.

Bigarren aukera trenbide-sare horren azpiko gaur egungo konexioak hobetzearekin eta zabaltzearekin lotzen da –tren-bide-sarearen bi aldeen artean behar bezain konexio arina eta argia lortzeko moduan–. Beste batzuk baztertu gabe, pasabide horiek indartu egin beharko liriteke, San Juan kalearen inguru-nean batik bat, gune horretan barrena lotzen baita zuzenean hirigunea San Esteban esparruarekin. Beste esku-hartze batzuk baztertu gabe, ingurune horretan dauden trenbidearen azpiko bi konexioak espazio bakar batean batzeko gutxienezko helburua nabarmendu behar da.

Esparruan aurreikusten den Hiri Antolamenduko Plan Berezia edo bertan sustatu beharreko Urbanizatzeko Jardun Programa lantzearen eta onartzearen testuinguruan, aukera bat edo bestea hautatu beharko da.

— Esparruaren hego-mendebaldean dagoen ekonomia-jar-dueretarako zona finkatu behar da («Iturzaeta, SA», «Olga», «Accesorios Urki», «Urto», eta beste enpresa batzuk okupatzen dutena).

— Beste errealitate batzuk ere finkatu behar dira: Zuberoa bizitegi-multzoa; San Juan kaleko 10 eta 12 zenbakietako bizi-tegi-eraikinak; Osakidetza instalazioak; Tolargiren instala-zioak; etab.

— Elosegi parkea espazio libre publiko gisa finkatu behar da –1989ko Plangintzako Arau Subsidiarioetan jada aurreikus-ten zen–.

— Esparruaren gainerakoaren hiri-berrikuntza eta hiri-bir-kualifikazioa sustatu behar da, eta lehentasunez bizitegi-gara-pen berrietara zuzendu behar da, besteak beste honako irizpi-deen arabera:

\* Garapen horien optimizazio kualitatiboa eta kuantitati-boa, kalitate globala bermatzen duten baldintza egokietan plan-teatua.

NORMA PARTICULAR DEL ÁMBITO URBANÍSTICO  
«11. SAN ESTEBAN»

I. SUPERFICIE Y DELIMITACIÓN

Este Ámbito está situado en la margen izquierda de la red ferroviaria de RENFE, en el barrio también denominado San Esteban.

Tiene una superficie total de 127.361 m<sup>2</sup>. Su delimitación es la reflejada en el plano «II.1.4 Clasificación del suelo. Delimitación de Ámbitos Urbanísticos (Medio urbano)» del documento «5. Planos» de este Plan General.

II. CRITERIOS Y OBJETIVOS GENERALES DE ORDENACIÓN

Coexisten en el Ámbito realidades diversas que van desde edificaciones residenciales y de actividades económicas hasta las instalaciones públicas –ferial, ambulatorio, etc.–, pasando por el denominado parque Elósegui.

Se plantea la reforma y recalificación urbana global del ámbito de acuerdo de conformidad con, entre otros, los criterios y objetivos generales siguientes:

— Mejora de las conexiones entre ambos márgenes de la red ferroviaria, en aras a la adecuada comunicación del ámbito y de los desarrollos existentes y previstos en el mismo con el centro urbano.

Se proponen a ese respecto dos posibles alternativas de intervención.

Una de ellas conllevaría el soterramiento de la citada red ferroviaria en el mayor tramo posible.

La segunda está asociada a la posible mejora de las actuales conexiones por debajo de esa red ferroviaria, ampliándolas en la medida necesaria para crear una conexión suficientemente fluida y diáfana entre ambas partes de la red. Sin descartar otros, esos pasos deben reforzarse, en particular, en el entorno de la calle San Juan, en la medida en que es éste el punto que conecta más directamente San Esteban con el centro urbano. Sin descartar otro tipo de intervenciones, cabe citar, como objetivo mínimo, la unión en un único espacio de las dos conexio-nes bajo el ferrocarril existentes en ese entorno.

Procede la elección de una u otra alternativa en el contexto de la elaboración y aprobación bien del Plan Especial de Ordenación Urbana previsto en el ámbito, bien del Programa de Actuación Urbanizadora a promover en él.

— Consolidar la zona de actividades económicas existente en el extremo Suroeste del ámbito, ocupada por empresas como «Iturzaeta, S.A.», «Olga», «Accesorios Urki», «Urto», etc.

— Consolidar otras realidades como las siguientes: El grupo residencial Zuberoa; las edificaciones residenciales ubi-cadas en los números 10 y 12 de la calle San Juan; las instala-ciones de Osakidetza; las instalaciones de Tolargi; etc.

— Consolidar el parque Elósegui como espacio libre público, ya previsto en las Normas Subsidiarias de Planea-miento de 1989.

— Promover la reforma y rehabilitación urbana del resto del ámbito, destinándolo preferentemente a nuevos desarrollos residenciales, de acuerdo con, entre otros, los criterios siguien-tes:

\* Optimización cualitativa y cuantitativa de dichos des-arrollos, planteada en las debidas condiciones que garanticen su calidad global.

\* Proposatutakoaren gisako garapenak eskatzen duen kalitatezko zuzkidura publikoen aurreikuspena (ekipamenduak, espazio libreak, etab.).

Testuinguru horretan, «Bonberenea» gaur egun garatzen diren kultur jarduerak esparruan mantentzea proposatzen da. Era berean, gaur egun Ferialean garatzen diren jardueri eustea proposatzen da, betiere esparruan planteatutako garapen berriekin bateragarriak badira.

Helburu horiek lortzeko justifikatu egiten du behar besteko dimentsionamendu eta ezaugarri kualitatibo eta kuantitatibo egokiak izango dituen ekipamendu-zuzkidura balioanitzaren aurreikustea —sestrapean zein sestra gainean izango du proiektzioa eta aipatutako jarduerak harmoniaz bateragarri egiteko moduan antolatu eta programatu da—. «Bonbereneako» kultur jardueren garrantzia eta berezitasuna dela eta, justifikatuta dago ekipamendu-zuzkidura horren ardatz eta motore gisa hartzea.

\* Ahalik eta etxebizitza kopururik handiena eta zentzuzkoena antolatzea —guztira 1.066 etxebizitza inguru kalkulatu da—.

\* Ahalik eta etxebizitza kopururik handiena lotzea babes publikoko erregimenarekin, proposatutako garapenaren bideragarritasuna bermatuko duten baldintzetan.

\* Etxebizitzen garapen horrekin bateraezinak diren gaur egungo eraikinak eraistea eta garapen horrekin bateraezinak diren jarduerak lekuz aldatzea.

\* Etxebizitza-garapen hori behar bezala lotzea Elosegui parkearekin —parkea garapen horren barruan integratu da—.

\* Hiri Antolamenduko Plan Berezia formulatzea, aurreko irizpideen arabera antolamendu xehatua zehazteko ondorioetarako.

### III. EGITURAZKO HIRIGINTZA ERREGIMENA

#### 1. Kalifikazio globala.

1.1. «A.20 Eraikuntza Irekiko Bizitegi Zona» («11.1 San Esteban. Bizitegi-garapen berria» azpiesparrua). (Azalera: 79.727 m<sup>2</sup>).

#### A. Eraikuntza-baldintzak:

##### a) Hirigintza-eraikigarritasuna:

— Hirigintza-garapen berriak:

\* Sestra gaineko eraikigarritasuna: 103.178 m<sup>2</sup>(s).

\* Sestrapeko eraikigarritasuna: 61.900 m<sup>2</sup>(s).

— Hirigintza-garapen finkatuak:

\* Sestra gaineko eraikigarritasuna: Gaur egun dauden eta finkatzen diren eraikinen egungo lerrokaduren eta formaren emaitzazkoak dira.

\* Sestrapeko eraikigarritasuna: Bi (2) soto-solairu.

##### b) Eraikuntzaren forma arautzen duten parametroak:

(Azpi)esparruan sustatu beharreko Hiri Antolamenduko Plan Bereziak zehaztuko ditu antolamendu xehatuaren lerrunarekin parametro horiek, betiere antolamendu hori zehazteko ondorioetarako.

#### B. Erabilera-baldintzak.

a) Plan Orokor honetan «A.20» zona globalerako ezarritako berezko erabilera-baldintza orokorrak izango dira.

Testuinguru horretan, eta izaera orokorrez, baimendu egiten da 1. eta 2. kategoriako merkataritza-erabilerak ezartzea esparruko bizitegi-lursailetan («a» lursailetan).

\* Previsión de las dotaciones públicas (equipamientos, espacios libres, etc.) de calidad que requiere un desarrollo como el propuesto.

Se propone, en ese contexto, el mantenimiento en el ámbito de las actividades culturales que actualmente se desarrollan en «Bonberenea». Y también las actividades hoy día desarrolladas en el Ferial, siempre que resulten compatibles con los nuevos desarrollos planteados en el ámbito.

La consecución de esos objetivos justifica la previsión de una dotación equipamental polivalente, con un dimensionamiento y unas características cualitativas y cuantitativas suficientes y adecuadas, con proyección tanto sobre como bajo rasante, y organizado y programado de manera que permita la armónica convivencia de actividades como las mencionadas. La importancia y la singularidad de unas actividades culturales como las de «Bonberenea» justifican su consideración como eje y motor de dicha dotación equipamental.

\* Ordenación del mayor y razonado número de viviendas posible, estimándose su cuantía en un total aproximado de 1.066 viv.

\* Vinculación de la mayor cantidad posible de viviendas al régimen de protección pública, en las debidas condiciones que garanticen la viabilidad del desarrollo propuesto.

\* Derribo de las edificaciones existentes incompatibles con el referido desarrollo de viviendas, y traslado de las actividades también incompatibles con el mismo.

\* La adecuada conexión de ese desarrollo de viviendas con el parque Elósegui, integrando éste en aquél.

\* Formulación de un Plan Especial de Ordenación Urbana a los efectos de la determinación de la correspondiente ordenación pormenorizada, acorde con los criterios anteriores.

### III. RÉGIMEN URBANÍSTICO ESTRUCTURAL

#### 1. Calificación global.

1.1. Zona «A.20 Residencial de Edificación Abierta» (Subámbito «11.1 San Esteban. Nuevo desarrollo residencial»). (Superficie: 79.727 m<sup>2</sup>).

#### A. Condiciones de edificación:

##### a) Edificabilidad urbanística:

— Nuevos desarrollos urbanísticos:

\* Edificabilidad sobre rasante: 103.178 m<sup>2</sup>(t).

\* Edificabilidad bajo rasante: 61.900 m<sup>2</sup>(t).

— Desarrollos urbanísticos consolidados:

\* Edificabilidad sobre rasante: La resultante de las alineaciones y de la forma actuales del conjunto de las edificaciones existentes y consolidadas.

\* Edificabilidad bajo rasante: La asociada a dos (2) plantas de sótano.

##### b) Parámetros reguladores de la forma de la edificación:

Dichos parámetros serán los que determine, con rango de ordenación pormenorizada, el Plan Especial de Ordenación Urbana a promover en el (sub)ámbito a los efectos de la determinación de dicha ordenación.

#### B. Condiciones de uso.

a) Las condiciones generales de uso son las propias de la zona global «A.20», establecidas en este Plan General.

En ese contexto y con carácter general, se autoriza la implantación de usos comerciales de 1.<sup>a</sup> y 2.<sup>a</sup> categorías en las parcelas residenciales (parcelas «a») del ámbito.

Esparruaren antolamendu xehatua zehazteko sustatu beharreko Plan Bereziak, halaber, bizitegi-lursailetan lehen aditzera emandako kategorietakoak baino kategoria handiagoko merkataritza-erabilerak ezartzea baimendu ahal izango du, betiere Plan honen Hirigintza Arau Orokorretan horietarako ezarritako baldintzetan.

Era berean, merkataritza-erabilerak beste mota bateko lursailetan ezarriko badira, Plan honen Hirigintza Arau Orokorretan horietarako ezartzen diren irizpide orokorrak bete beharko dira.

b) Bizitegi-eraikigarritasunaren erregimen juridikoa:

— Eraitsi eta ordezkatu beharreko egungo bizitegi-eraikigarritasuna: 5.055 m<sup>2</sup>(s).

— Bizitegi-eraikigarritasun berria:

\* Babes ofizialeko etxebizitzetarako (%35): 31.823 m<sup>2</sup>(s).

\* Etxebizitza babestu tasatuetarako (%35): 31.823 m<sup>2</sup>(s).

\* Sustapen libreko etxebizitzetarako (%30): 27.277 m<sup>2</sup>(s).

\* Guztira: 90.923 m<sup>2</sup>(s).

— Guztizko bizitegi-eraikigarritasuna: 95.978 m<sup>2</sup>(s).

Sestra ganean aurreikusten den gainerako hirigintza-eraikigarritasuna hirugarren sektoreko erabileretara zuzenduko da.

1.2. «B.10 Industria Erabilerako Zona» (hirigintza-esparruaren gainerakoa). (Azalera: 20.629 m<sup>2</sup>).

A. Eraikuntza-baldintzak.

a) Hirigintza-eraikigarritasuna:

— Sestra gaineko eraikigarritasuna: 2,5 m<sup>2</sup>(s)/m<sup>2</sup> (lursail pribatukoa).

— Sestrapeko eraikigarritasuna: Baimentzen den sestrapeko solairu kopuruari dagokion eraikigarritasuna.

b) Eraikuntzaren forma arautzen duten parametroak:

Parametro horiek Arau Partikular honetako hurrengo IV. epigrafean antolamendu xehatuaren berezko lerrunarekin ezarritakoak dira.

B. Erabilera-baldintzak.

Plan honetan «B.10 Industria-erabilerako zonetarako» orokorrean ezarritakoak («2.1. Hirigintza Arau Orokorrek» dokumentua).

1.3. «E.10 Espazio Libreen Sistema Orokorra». (Azalera: 27.005 m<sup>2</sup>).

Plan honetako «2.1. Hirigintza Arau Orokorrek» dokumentuan ezartzen dira, izaera orokorrez, zona honetan eraikitze eta erabiltzeko baldintzak.

2. Tokiko sistemen sarea arautzeko baldintza orokorrak.

Ez dira tokiko sistemen sarea arautzeko baldintza orokorrak ezartzen.

3. Hirigintza-sailkapena.

Esparruko lur guztiak hiri-lurzoru gisa sailkatu dira.

4. Antolamendu xehatua zehazteko erregimena.

— «11.1 San Esteban. Bizitegi-garapen berria» (azpi)esparruko «A.20 Eraikuntza irekiko bizitegi-zona»: Antolamendu xehatua zehazteko Hiri Antolamenduko Plan Berezia landuko da.

A su vez, el Plan Especial a promover en el ámbito con el fin de determinar la ordenación pormenorizada del mismo podrá autorizar la implantación en las parcelas residenciales de usos comerciales de categoría superior a las antes citadas, en las condiciones establecidas para las mismas en las Normas Urbanísticas Generales de este Plan.

A su vez, la implantación de usos comerciales en otro tipo de parcelas se adecuará los criterios generales establecidos para las mismas en las Normas Urbanísticas Generales de este Plan.

b) Régimen jurídico de la edificabilidad residencial:

— Edificabilidad residencial existente a derribar y sustituir: 5.055 m<sup>2</sup>(t).

— Nueva edificabilidad residencial:

\* Destinada a viviendas de protección oficial (35%): 31.823 m<sup>2</sup>(t).

\* Destinada a vivienda protegida tasada (35%): 31.823 m<sup>2</sup>(t).

\* Destinada a promoción libre (30%): 27.277 m<sup>2</sup>(t).

\* Total: 90.923 m<sup>2</sup>(t).

— Edificabilidad residencial total: 95.978 m<sup>2</sup>(t).

La edificabilidad urbanística restante prevista sobre rasante se destina a usos terciarios.

1.2. Zona «B.10 Uso Industrial» (resto del Ámbito Urbanístico). (Superficie: 20.629 m<sup>2</sup>).

A. Condiciones de edificación.

a) Edificabilidad urbanística:

— Edificabilidad sobre rasante: 2,5 m<sup>2</sup>(t)/m<sup>2</sup> (de parcela privada).

— Edificabilidad bajo rasante: Edificabilidad asociada al número de plantas bajo rasante autorizado.

b) Parámetros reguladores de la forma de la edificación:

Dichos parámetros son los expuestos, con rango de ordenación pormenorizada, en el siguiente epígrafe IV de esta misma Norma Particular.

B. Condiciones de uso.

Las establecidas con carácter general en este Plan para las zonas «B.10 Uso industrial» (Documento «2.1 Normas Urbanísticas Generales»).

1.3. Zona «E.10 Sistema General de Espacios Libres». (Superficie: 27.005 m<sup>2</sup>).

Las condiciones de edificación y uso de esta zona son las establecidas con carácter general para la misma en este Plan (Documento «2.1 Normas Urbanísticas Generales»).

2. Condiciones generales reguladoras de la red de sistemas locales.

No se establecen condiciones estructurales reguladoras de la red de sistemas locales.

3. Clasificación urbanística.

La totalidad de los terrenos del Ámbito se clasifican como suelo urbano.

4. Régimen de determinación de la ordenación pormenorizada.

— Zona «A.20 Residencial de edificación abierta» del (sub)ámbito «11.1 San Esteban. Nuevo desarrollo residencial»: Se elaborará un Plan Especial de Ordenación Urbana con el fin de determinar la ordenación pormenorizada.

Plan Berezi hori «E.10 Espazio libreen sistema orokorra» zonara zabal daiteke –betiere egokia izanez gero–, iritsiera eta helburu egokiekin.

— Hirigintza-esparruaren gainerakoa: Plan Orokor honetan definitzen da antolamendu xehatua.

##### 5. Programatzeko eta gauzatzeko erregimen orokorra.

###### A. Programatzeko eta gauzatzeko erregimen orokorra.

Esparru honetan planteatutako garapen berria garatzea eta gauzatzeko da Plan Orokor honetan planteatutako esku-hartze estrategikoetako bat, Tolosaren etorkizuneko hirigintza-garapenaren testuinguruan.

Trenbidearen bi aldeen arteko lotura hobetzeko beharrezko obrak eta jardunak gauzatzearekin lotuko da.

Edonola ere, garapen horren konplexutasunak justifikatu egiten du beharrezko hirigintza-dokumentuak lantzeko eta bideratzeko prozesuari hasiera ematea, betiere Plan Orokor hau behin betiko onartu ostean.

Testuinguru horretan, «11.1 San Esteban. Bizitegi-garapen berria» (azpi)esparrua jardun integratuko esparrua izango da, eta dagokion Urbanizatzeko Jardun Programaren mende egon beharko du. Gainera, jardun integratuko esparru horri honakoak erantsi edo atxikiko zaizkio:

— Hirigunea hobetzeko obraren eraginpean dauden lurrak, RENFEren trenbide-sarea gainditzeko edo saihesteko hartzen diren erabakiak edozein izanik ere.

— Zerbitzu-azpiegiturak (ura, saneamendua, elektrizitatea, eta abar) gauzatzeko obraren eraginpean dauden lurrak, aurreikusten diren garapen berriei dagozkien neurrian eta/edo ehunekoan –lur horiek (azpi)esparrukoak izan edo ez izan kontuan hartu gabe–.

(Azpi)esparru horren Plan Bereziak mugatuko du jardun integratu horren eraginpean dagoen esparrua, bai dagozkion lurrak bertan barne hartuz, bai hari atxikiz.

###### B. Sistema orokor publikoak lortzeko, gauzatzeko eta ordaintzeko erregimena.

«11.1 San Esteban. Bizitegi-garapen berria» (azpi)esparruan aurreikusten den hirigintza-garapen berriarekin batera eta harekin koordinaturik gauzatu beharko dira trenbide-sarearen bi aldeen arteko lotura hobetzeko erabakitzen diren obrak eta jardunak. Horrela, hirigunearen eta esparruaren –eta bertan aurreikusten diren garapenen– komunikazio egokia lortu nahi da, horretarako egoki jotzen den aukera edozein izanik ere (trenbide-sarea lurperatzea; trenbide-sarearen azpiko gaur egungo konexioak hobetzea).

Xede horretarako beharrezko obrak gauzatzeko eta ordaintzeko betebeharrak honako irizpideen arabera finkatuko dira:

— Obra horiek gauzatzeko eta ordaintzea, hautatzen den aukera edozein izanik ere, trenbide arloan eskumena duen entitatearen betebeharra izango da (RENFE, ADIF, etab.).

— Trenbidearen azpiko pasabidea hobetzeko eta zabaltzeko irtenbidea izanik, horren kostua «11.1 San Esteban. Bizitegi-garapen berria» (azpi)esparruaren hirigintza-eskubideen titularraren urbanizazio kargatzat hartuko da, entitate hark bere egiten ez duen zatian.

Ese Plan Especial podrá extenderse a la zona «E.10 Sistema general de espacios libres» siempre que se estime oportuno, y con el alcance y los fines que se consideren adecuados.

— Resto del Ámbito Urbanístico: Su ordenación pormenorizada se define en este Plan General.

##### 5. Régimen general de programación y ejecución.

###### A. Régimen de programación y ejecución general.

El desarrollo y la ejecución del nuevo desarrollo planteado en este ámbito constituye una de las intervenciones estratégicas planteadas en este Plan General en el contexto del futuro desarrollo urbanístico de Tolosa.

Ha de ir unida a la ejecución de las obras y actuaciones que se estimen necesarias para la mejora de la conexión entre ambos márgenes del ferrocarril.

En todo caso, la complejidad de este desarrollo justifica el inicio del proceso de elaboración y tramitación de los documentos urbanísticos necesarios para ello tras la aprobación definitiva de este Plan General.

En ese contexto, el (sub)ámbito «11.1 San Esteban. Nuevo desarrollo residencial» conformará un ámbito de actuación integrada, que deberá ser objeto del correspondiente Programa de Actuación Urbanizadora. Además, se integrarán o adscribirán a ese ámbito de actuación integrada:

— Los terrenos afectados por las obras de mejora con el centro urbano, cualesquiera que sean las decisiones que se adopten para salvar o sortear la red ferroviaria de RENFE.

— Los terrenos afectados por las obras de ejecución de infraestructuras de servicios (agua, saneamiento, electricidad, etc.) en la medida y/o porcentaje asociado a los nuevos desarrollos previstos, con independencia de que esos terrenos formen parte del (sub)ámbito o sean exteriores al mismo.

Sea mediante la inclusión en él de los correspondientes terrenos o su adscripción al mismo, el ámbito objeto de dicha actuación integrada será delimitado por el Plan Especial referido a ese (sub)ámbito.

###### B. Régimen de obtención, ejecución y abono de los sistemas generales públicos.

La ejecución del nuevo desarrollo urbanístico previsto en el (sub)ámbito «11.1 San Esteban. Nuevo desarrollo residencial» se vincula a la simultánea y coordinada ejecución de las obras y actuaciones que se acuerden para la mejora de las conexiones de ambas márgenes de la red ferroviaria, en aras a la adecuada comunicación del Ámbito y de los desarrollos previstos en el mismo con el centro urbano, cualquiera que sea la alternativa que para ello se estime adecuada (soterramiento de la citada red ferroviaria; mejora de las actuales conexiones por debajo de esa red ferroviaria).

Las obligaciones de ejecución y abono de las obras necesarias para ese fin se determinarán de conformidad con los siguientes criterios:

— La ejecución y abono de esas obras, cualquiera que sea la alternativa por la que se opte, será considerada como una obligación propia de la entidad competente en materia ferroviaria (RENFE, ADIF, etc.).

— Tratándose de la solución de mejora y ampliación del paso bajo el ferrocarril, su coste ha de ser considerado como carga de urbanización de los titulares de los derechos urbanísticos del (sub)ámbito «11.1 San Esteban. Nuevo desarrollo residencial», en la parte en que el mismo no sea asumido por aquella entidad.

— Trenbidea lurperatzearen aukera finantzatzeko beharrezko neurriak eta erabakiak zehaztasunez finkatzearen baldintzapean izango da aukera horren bideragarritasuna, batez ere trenbidearen arloan eskumena duen entitate horrek bere gain hartzen ez duen zatian. Kasu horretan, finantziario horrek honako irizpideak hartuko ditu aintzat: Lehenik, ez da «11.1 San Esteban. Bizitegi-garapen berria» (azpi)esparruko emaitzazko hirigintza-eskubideen titularren urbanizazio-karga orokor gisa hartuko. Bigarren, urbanizataileari egotzi beharreko urbanizazio-karga gisa, osorik edo zati batean, hartzeko bideragarritasuna aztertuko da. (Azpi)esparru horretan planteatutako bizitegi-garapena gauzatzeko sustatu beharreko Urbanizatzeko Jardun Programa formulatzearen testuinguruan hautatuko da urbanizatailea, eraginak (azpi)esparruko lurren jabeen artean hedatu gabe. Hirugarren, egokiak eta egingarriak diren finantziario publikoko beste neurri batzuk aztertu eta zehaztuko dira.

#### C. Garapen-plangintza lantzeko eta onartzeko epeak.

«11.1 San Esteban. Bizitegi-garapen berria» (azpi)esparruan sustatu beharreko Plan Berezia ere Plan Orokor honen indarraldiko lehen laurtekoan landu eta bideratuko da.

### IV. HIRIGINTZA ERREGIMEN XEHATUA

#### 1. Kalifikazio xehatua.

A. Zonifikazio xehatua mugatzeko baldintzak eta antolatutako (azpi)zona xehatuko tipologia zehazteko baldintzak.

a) «11.1 San Esteban. Bizitegi-garapen berria» (azpi) esparrua.

«A.20 Eraikuntza irekiko bizitegi-zonari» dagokionez, (azpi)esparruan sustatu beharreko Hiri Antolamenduko Plan Berezia ezarriko diren baldintzak izango dira.

Adierazitakoaren ildotik, Plan Berezi hori «E.10 Espazio librean sistema orokorra» zonara (Elosegi parkera) zabal daiten —betiere egokia izanez gero—.

b) Hirigintza-esparruaren gainerakoa.

Plan Orokor honetako «5. Planoak» dokumentuko «III.1. Zonifikazio Xehatua» planoan islatzen diren baldintzak dira.

B. Antolatutako lursailen eraikigarritasun fisikoa.

a) «11.1 San Esteban. Bizitegi-garapen berria» (azpi) esparrua.

(Azpi)esparruan sustatu beharreko Hiri Antolamenduko Plan Berezia ezarriko diren aurreikuspenen ondoriozkoa izango da lursail bakoitzaren eraikigarritasun fisikoa.

b) Hirigintza-esparruaren gainerakoa.

Sestrapean zein sestra ganean, lursail bakoitzeko eraikigarritasun fisikoa aurreko «III» epigrafean adierazitako aurreikuspenen emaitzazkoa da.

C. Antolatutako lursailen eraikuntzaren forma arautzen duten baldintzak.

a) «11.1 San Esteban. Bizitegi-garapen berria» (azpi) esparrua.

(Azpi)esparruan sustatu beharreko Hiri Antolamenduko Plan Bereziak antolamendu xehatuaren berezko lerrunarekin ezartzen dituen baldintzak izango dira.

— La propia viabilidad de la alternativa de soterramiento del ferrocarril ha de entenderse condicionada a la precisa determinación de las medidas y decisiones necesarias para su financiación, especialmente en la parte en la que la misma no sea asumida por la indicada entidad competente en materia ferroviaria. En este caso, esa financiación se adecuará a, entre otros, los criterios siguientes. En primer lugar, no será considerada como carga de urbanización general de los titulares de los derechos urbanísticos resultantes en el (sub)ámbito «11.1 San Esteban. Nuevo desarrollo residencial». En segundo lugar, se analizará la viabilidad o no de considerarlo, bien en su totalidad, bien parcialmente, como carga de urbanización a imputar al urbanizador a seleccionar en el contexto de la formulación del correspondiente Programa de Actuación Urbanizadora a promover para la ejecución del desarrollo residencial planteado en ese (sub)ámbito, sin que sus afecciones se extiendan a los propietarios de terrenos del (sub)ámbito. En tercer lugar, se analizarán y determinarán cualesquiera otras medidas de financiación pública que se estimen adecuadas y posibles.

C. Plazos para la elaboración y aprobación del planeamiento de desarrollo.

El Plan Especial a promover en el (sub)ámbito «11.1 San Esteban. Nuevo desarrollo residencial» será elaborado y tramitado dentro del primer cuatrienio de vigencia de este Plan General.

### IV. RÉGIMEN URBANÍSTICO PORMENORIZADO

#### 1. Calificación pormenorizada.

A. Condiciones de delimitación de la zonificación pormenorizada y de determinación de la tipología de las (sub)zonas de uso pormenorizado ordenadas.

a) (Sub)ámbito «11.1 San Esteban. Nuevo desarrollo residencial».

En lo referente a la zona «A.20 Residencial de Edificación Abierta», dichas condiciones serán las que se establezcan en el Plan Especial de Ordenación Urbana a promover en el (sub)ámbito.

Conforme a lo expuesto, ese Plan Especial podrá extenderse a la zona «E.10 Sistema General de Espacios Libres» (parque Elósegui) siempre que se estime oportuno.

b) Resto del Ámbito Urbanístico.

Dichas condiciones son las reflejadas en el plano «III.1 Zonificación Pormenorizada» del documento «5. Planos» de este Plan General.

B. Edificabilidad física de las parcelas ordenadas.

a) (Sub)ámbito «11.1 San Esteban. Nuevo desarrollo residencial».

La edificabilidad física de cada parcela será la que resulte de las previsiones que establezca el Plan Especial de Ordenación Urbana a promover en el (sub)ámbito

b) Resto del Ámbito Urbanístico.

Tanto sobre como bajo rasante, la edificabilidad física de cada parcela será la resultante de las previsiones expuestas en el anterior epígrafe «III».

C. Condiciones reguladoras de la forma de la edificación de las parcelas ordenadas.

a) (Sub)ámbito «11.1 San Esteban. Nuevo desarrollo residencial».

Dichas condiciones serán las que establezca, con el rango propio de la ordenación pormenorizada, el Plan Especial de Ordenación Urbana a promover en el (sub)ámbito con el fin de determinar dicha ordenación.

b) Hirigintza-esparruaren gainerakoa (esparru horretako «B.10 Industria-erabilera» zona globalean kokatzen diren lursailak).

— Solairu kopurua.

\* Sestra gainean: II.

\* Sestrapean:

\* Industria-jardueretarako eraikuntzetako zorupean solairu 1.

\* Baimentzen diren beste erabileretarako eraikuntzetan gehienez hiru (3) solairu.

— Sestra gaineko eraikuntza-altuera: 12 m.

Edonola ere, Plan Orokor honen Hirigintza Arau Orokorretako 66. artikuluan, besteak beste, ezarritako ildo horretako irizpideak izango dira aplikatzekoak.

Azpiesparruaren antolamendu xehatua zehazteko, azpiesparruan sustatu beharreko Plan Berezian barne hartzen diren aurreikuspenen emaitzak izango dira lursail bakoitzeko eraikuntzako parametro formalak.

D. Antolatutako (azpi)zona xehatuetako erabilera-baldintzak.

Plan Orokor honetako «2.1. Hirigintza Arau Orokorra» dokumentuan ezartzen dira, izaera orokorrez, (azpi)zona horietako bakoitzerako baldintzak. Dena den, baldintza horiek «11.1 San Esteban. Hirigintza-garapen berria» (azpi)esparruan sustatu beharreko plangintza xehatuaren bidez osatu eta/edo berregokituko dira, komeni den heinean.

E. Jabari-baldintza partikularrak.

Plan Orokor honetan ez da arlo horretako baldintza zehatzik ezartzen, «11.1 San Esteban. Bizitegi-garapen berria» (azpi)esparruan sustatu beharreko Hiri Antolamenduko Plan Berezian ezarriko diren baldintzen kalterik gabe.

F. Eraikinek San Esteban errearen ibilguarekiko gorde beharreko atzerapena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean ezarritako irizpideen arabera, esparruan proiektatzen diren eraikuntza berriak —aurretik daudenak ordezkatzeko dituztenak edo oin berrikoak— San Esteban errearen ibilguarekiko gutxienez 10 metro atzeratu beharko dira (12 metro ubideratzea definituta ez duten muturretan).

## 2. Hiri-lurzoruaren kategorizazioa.

Formulatu beharreko Hiri Antolamenduko Plan Berezian ezarriko du «11.1 San Esteban. Bizitegi-garapen berria» (azpi)esparruan barne hartzen diren «A.20 Eraikuntza irekiko bizitegi-zonako» lursailen kategorizazioa.

«E.10 Espazio librean sistema orokorra» zonaren (Elosegi Parkea) lurra hiri-lurzoru finkatu gabeak dira, urbanizazioaren gabeziagatik eta/edo urritasunagatik.

Bestalde, Esparruko gainerako lurra hiri-lurzoru finkatuak dira, betiere eraikuntza haztatua gehitzeagatik hiri-lurzoru finkatu gabearen baldintza betetzen dituzten lurren salbuespenarekin.

## V. HIRIGINTZA ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZAK

«11.1 San Esteban. Bizitegi-garapen berria» (azpi)esparruaren antolamendu xehatua zehazteko ondorioetarako, honako alderdiak hartuko dira kontuan:

b) Resto del Ámbito Urbanístico (parcelas ubicadas en la zona global «B.10 Uso industrial» de este ámbito).

— Número de plantas.

\* Sobre rasante: II.

\* Bajo rasante:

\* 1 planta en el subsuelo de las edificaciones destinadas a actividades industriales.

\* Hasta un máximo de tres (3) plantas en edificaciones destinadas a otros usos autorizados.

— Altura de edificación sobre rasante: 12 m.

En todo caso, serán de aplicación los criterios establecidos a ese respecto, entre otros, en el artículo 66 de las Normas Urbanísticas Generales de este Plan General.

Los parámetros formales de la edificación de cada parcela serán los resultantes de las previsiones incluidas en el Plan Especial a promover en el subámbito a los efectos de la determinación de la ordenación pormenorizada del mismo.

D. Condiciones de uso de las (sub)zonas pormenorizadas ordenadas.

Esas condiciones son las establecidas con carácter general para cada una de esas (sub)zonas en el documento «2.1. Normas Urbanísticas Generales» de este Plan General, complementadas y/o reajustadas, en la medida en que se estime conveniente, mediante el planeamiento pormenorizado a promover en el (sub)ámbito «11.1 San Esteban. Nuevo desarrollo residencial».

E. Condiciones particulares de dominio.

Sin perjuicio de las que, en su caso, establezca el Plan Especial de Ordenación Urbana a promover en el (sub)ámbito «11.1 San Esteban. Nuevo desarrollo residencial», no se establecen en este Plan General condiciones particulares en esta materia.

F. Retiro de las edificaciones del cauce de la regata San Esteban.

De conformidad con los criterios establecidos en el vigente Plan Territorial Sectorial de ordenación de márgenes de los ríos y arroyos de la CAPV, el retiro de las nuevas edificaciones proyectadas en el ámbito, bien en sustitución de otras preexistentes bien de nueva planta, respecto del cauce de la regata San Esteban será, como mínimo, de 10 m (12 m en los extremos en los que, en su caso, el encauzamiento no esté definido).

## 2. Categorización del suelo urbano.

La categorización de los terrenos de la zona «A.20 Residencial de edificación abierta» incluidos en el (sub)ámbito «11.1 San Esteban. Nuevo desarrollo residencial» será que la establezca el Plan Especial de Ordenación Urbana a formular en el mismo.

Los terrenos de la zona «E.10 Sistema General de Espacios Libres» (parque Elósegui) se categorizan como suelo urbano no consolidado por carencia y/o insuficiencia de urbanización.

Por su parte, los restantes terrenos del Ámbito tienen la condición de suelo urbano consolidado, con la salvedad referida a los que, por incremento de la edificabilidad ponderada, reúnan la condición de suelo urbano no consolidado.

## V. CONDICIONES SUPERPUESTAS A LA ORDENACIÓN URBANÍSTICA

A los efectos de la determinación de la ordenación pormenorizada del (sub)ámbito «11.1 San Esteban. Nuevo desarrollo residencial» se han de tener en cuenta, entre otras, las siguientes cuestiones:



— Esparruaren inguruan RENFERen trenbide-sarea agertzea.

— San Esteban erreka esparrua zeharkatzea.

## VI. ERAIKUNTZAK ETA/EDO ELEMENTU BEREZIAK KATALOGATZEKO BALDINTZAK

Esparru honetako eraikuntza edo elementu bakar bat ere ez da Plan Orokor honetako katalogoan barne hartzen.

## VII. GAUZATZEKO BERARIAZKO ERREGIMENA

### 1. Urbanizazio-erregimena.

Sustatu beharreko Hiri Antolamenduko Plan Bereziak ezarzen duen urbanizazio-erregimenaren mende egongo da «11.1. San Esteban. Bizitegi-garapen berria» (azpi)esparruaren hirigintza-garapena.

Trenbide-sarearen bi aldeen arteko konexioak hobetzeko lanak eta jardunak bidezko herri-lanetako obren eta jardunen mende izango dira. RENFERekin adosten diren arlo horretako irizpideen arabera landuko dira proiektu horiek.

### 2. Hirigintza-antolamenduarekin bat ez datozen eraikuntzak.

«11.1 San Esteban. Bizitegi-garapen berria» (azpi)esparruan sustatu beharreko Hiri Antolamenduko Plan Bereziak zehaztuko ditu ildo horretan egokiak diren aurreikuspenak.

### 3. Gauzatzeko erregimen juridikoa eta hirigintza alorrekoa.

Bertan sustatu beharreko Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren zein haren garapenean zehaztuko da «11.1 San Esteban. Bizitegi-garapen berria» (azpi)esparruan planteatzen den garapen berria gauzatzeko erregimen juridikoa eta hirigintza alorrekoa.

Trenbide-sarearen bi aldeen arteko konexioa hobetzeko lanak eta jardunen kostua aurreko «III» epigrafeko «5.B» idatziztatian azaldutako irizpideetara egokituko da.

## VIII. INGURUMEN ARLOKO NEURRIAK

### 1. Lur gaineko hidrologia.

Gaur egun estalita dagoen San Esteban erreka aire zabalean leheneratzeko eta planteatutako garapen berriaren testuinguruan integrazteko beharrezko neurriak sustatu beharko dira.

### 2. Hidrogeologia (akuiferoak).

Eremua Ernio unitate hidrologikoaren parte da, eta haren barruan, Ernio azpiunitatearen Tolosa sektorearen parte. Material jurasikoez eta urgoniarrez, hurrenez hurren, osatutako Tolosako eta Urkizuko akuiferoak daude bertan.

Zirkunstanzia horietan, eta une honetan eskura dugun informazioarekin, urrakortasun handiko ingurunea dela eman daiteke aditzera, eta, horrenbestez, mota orotako isurtzeak saihestu beharko dira. Era berean, gaur egun dauden baliabideetan eragina izan dezaketan lur-erazketak kontrolatu beharko dira.

Planteatutako proposamenak garatzeko eta gauzatzeko hurrengo faseetan, beharrezko ebaluazioaren eta kontrolaren mende izango dira ildo horretan sor daitezkeen eraginak. «11.1. San Esteban. Bizitegi-garapen berria» (azpi)esparruan aurreikusitako Plan Bereziaren lantzeko prozesuan, behar besteko arretarekin ekin beharko zaio zeregin horri, baita ondorengo urbanizazio eta eraikuntzako proiektuak lantzeko prozesuan ere.

— La presencia en las inmediaciones de la red ferroviaria de RENFE.

— El transcurso por el ámbito de la regata San Esteban.

## VI. CONDICIONES DE CATALOGACIÓN DE EDIFICACIONES Y/O ELEMENTOS SINGULARES.

Ninguna de las edificaciones o elementos del Ámbito se integra en el Catálogo de este Plan General.

## VII. RÉGIMEN ESPECÍFICO DE EJECUCIÓN

### 1. Régimen de urbanización.

El desarrollo urbanístico del (sub)ámbito «11.1 San Esteban. Nuevo desarrollo residencial» se sujetará al régimen de urbanización que se establezca en el Plan Especial de Ordenación Urbana a promover en el mismo.

Las obras y actuaciones de mejora de las conexiones entre ambas márgenes de la red ferroviaria serán objeto del o de los correspondientes proyectos de obras públicas. Estos proyectos serán elaborados de conformidad con los criterios que a ese respecto se acuerden con RENFE.

### 2. Edificaciones disconformes con la ordenación urbanística.

El Plan Especial de Ordenación Urbana a promover en el (sub)ámbito «11.1 San Esteban. Nuevo desarrollo residencial» determinará las previsiones que estime oportunas a ese respecto.

### 3. Régimen jurídico-urbanístico de ejecución.

El régimen jurídico-urbanístico de ejecución del nuevo desarrollo planteado en el (sub)ámbito «11.1 San Esteban. Nuevo desarrollo residencial» será el que se determine tanto en el Plan Especial de Ordenación Urbana a promover en él, como en su desarrollo.

El coste de las obras y actuaciones de mejora de la conexión entre ambas márgenes de la red ferroviaria se adecuará a los criterios expuestos en el apartado «5.B» del anterior epígrafe «III».

## VIII. MEDIDAS DE CARÁCTER AMBIENTAL

### 1. Hidrología superficial.

Deben incentivarse las medidas necesarias para la recuperación, a cielo abierto, de la hoy día cubierta regata San Esteban, así como para su integración en el contexto del nuevo desarrollo planteado.

### 2. Hidrogeología (acuíferos).

El área forma parte de la unidad hidrogeológica Ernio y, dentro de ella, del denominado sector Tolosa de la subunidad Ernio, en el que se encuentran los acuíferos de Tolosa y Urkizu, constituidos por materiales jurásicos y urgonianos respectivamente.

En esas circunstancias y en atención a la información con la que se cuenta en este momento, cabe señalar que se trata de un entorno de alta vulnerabilidad por lo que deberá de evitarse cualquier tipo de vertido. Deberán controlarse asimismo posibles excavaciones que pudieran afectar a los recursos existentes.

En las posteriores fases de desarrollo y ejecución de las propuestas planteadas, las posibles afecciones resultantes a ese respecto deben ser objeto de la debida evaluación y control. Esa tarea ha de ser acometida con la necesaria atención en, en particular, el contexto de los procesos de elaboración tanto del Plan Especial previsto en el (sub)ámbito «11.1 San Esteban. Nuevo desarrollo residencial» como de los posteriores proyectos de urbanización y edificación.

### 3. *Poluituta egon daitezkeen lurzorua leheneratzea.*

IHOBEren inbentarioaren arabera, eremuan poluitzailea izan daitezkeen kokaleku bat dago, Unipapel enpresari dagokiona (20071-0039 eta EJSN 21.1 kodea). Gaur egun ez dago jardura hori.

Proposatutako erabileren aldaketa horren aurretik, arlo horretan indarrean dagoen legerian aurreikusten diren ikerketa, ezagutza, kontrol eta tratamenduko prozesuen mende egon beharko du lurzoru horrek.

### 4. *Landaredia.*

«11.1 San Esteban. Bizitegi-garapen berria» (azpi)esparruaren antolamendu berria kokatzen da gaur egungo zuhaitz kopururik handiena eta, batez ere, tamaina eta munta handieneko zuhaitza gehien. Hori dela eta, alderdi hori izango da antolamendu hori zehazteko parametroetako bat xede horretarako formulatu beharreko Hiri Antolamenduko Plan Berezian.

### 5. *Biztanleria.*

Plan Berezi horretan «11.1. San Esteban. Bizitegi-garapen berria» (azpi)esparruaren antolamendu berria zehaztean, eta antolamendu hori eraikuntza-proiektuen bidez gauzatzean, RENFEren trenbidea hurbil egoteak sortzen dituen inpaktu akustikoen ebaluazioa egin beharko da, baita proiektatzen diren etxebizitza berrietako okupatzaileengan trenbideak izango dituen eraginaren ebaluazioa ere.

Eragin horiek ezabatu eta/edo murriztuko badira, xede horretarako beharrezko neurriak finkatu beharko dira.

### 6. *Beste alderdi batzuk.*

Esparruaren hirigintza garatzean, «2.1. Hirigintza Arau Orokorrak» dokumentuaren 5. artikuluan aipatzen diren udal-ordenantzetako honako arlo hauetako irizpideei jarraitu beharko zaie: Obrak egiten diren bitartean atmosferaren eta airearen kalitatea zaintzeko irizpideei; sortzen diren hondakinak biltzeko, tratatzeko eta biltegitatzeko irizpideei; obraren ondoriozko zaratak, hautsa eta abar ezabatzeko eta/edo murrizteko irizpideei; eta Ordenantza horietan arautzen diren eta aplikatzekoak diren beste alderdi guztiei buruzko irizpideei.

## «12. SAN FRANTZISKO»

### HIRIGINTZA ESPARRUKO ARAU PARTIKULARRA

#### I. AZALERA ETA MUGAKETA

«10. Gorosabel» hirigintza-esparruaren, RENFEren trenbidearen, San Frantzisko pasealekuaren, Araba etorbidearen, Oria ibaiaren eta «26. Olarrain» hirigintza-esparruaren artean kokatzen da.

Guztira 106.913 m<sup>2</sup>-ko azalera du. Plan Orokor honetako «5. Planoak» dokumentuko «II.1.4 Lurzoruaren sailkapena. Hirigintza Esparruen Mugaketa (hiri-ingurunea)» planoan islatzen da esparruaren mugaketa.

#### II. ANTOLAMENDU IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK

Esparru horrek hiri-garapen maila handia du, eta, salbuespenak salbuespen, egungo egoeran finkatu behar da. Hona hemen salbuespen horietako batzuk:

— San Frantzisko elizaren eta komentuaren atzean dagoen espazioa —garai batean alondegiak okupatzen zuena, zati batean bederen— hirigintza arloan berritzeko eta garatzeko prozesuari jarraipena ematea.

### 3. *Recuperación de suelos potencialmente contaminados.*

De acuerdo con el inventario de IHOBE, existe en el área un emplazamiento potencialmente contaminante, ligado a la empresa Unipapel (código 20071-0039 y CNAE 21.1). Está actividad no existe en la actualidad.

Ese suelo ha de sujetarse a los procesos de investigación, conocimiento, control y tratamiento previstos en la legislación vigente en la materia, con anterioridad a los cambios de uso propuestos.

### 4. *La vegetación.*

La integración en la nueva ordenación del (sub)ámbito «11.1 San Esteban. Nuevo desarrollo residencial» del mayor número de ejemplares arbóreos existentes, y, especialmente, de los de mayor entidad y porte, constituirá uno de los parámetros de determinación de dicha ordenación en el Plan Especial de Ordenación Urbana a formular con ese fin.

### 5. *La población.*

Los impactos acústicos derivados del ferrocarril de RENFE y sus afecciones en la población ocupante de las nuevas viviendas proyectadas han de ser objeto de la debida evaluación en el contexto tanto de la determinación de la nueva ordenación del (sub)ámbito «11.1 San Esteban. Nuevo desarrollo residencial» en el citado Plan Especial, como de su ejecución mediante los correspondientes proyectos de edificación.

Su eliminación y/o minimización requiere la determinación del conjunto de medidas que con ese fin se estimen necesarias.

### 6. *Otras cuestiones.*

La ejecución del desarrollo urbanístico del Ámbito debe ajustarse a los criterios que se establezcan en las Ordenanzas municipales mencionadas en el artículo 5 del Documento «2.1 Normas Urbanísticas Generales» en lo referente a: Preservación de la calidad de la atmósfera y del aire durante la ejecución de las obras; recogida, tratamiento y depósito de los residuos que se generen; eliminación y/o minimización de ruido, polvo, etc. derivados de las obras; cualesquiera otras cuestiones que, reguladas en esas Ordenanzas, sean de aplicación.

## NORMA PARTICULAR DEL ÁMBITO URBANÍSTICO «12. SAN FRANCISCO»

#### I. SUPERFICIE Y DELIMITACIÓN

Está situado entre el Ámbito Urbanístico «10 Gorosabel», el ferrocarril de RENFE, el Paseo San Francisco, la Avenida de Araba, el río Oria y el Ámbito Urbanístico «26 Olarrain».

Su superficie total es de 106.913 m<sup>2</sup>. Su delimitación es la reflejada en el plano «II.1.4 Clasificación del suelo. Delimitación de Ámbitos Urbanísticos (Medio urbano)» del documento «5. Planos» de este Plan General.

#### II. CRITERIOS Y OBJETIVOS GENERALES DE ORDENACIÓN

Este Ámbito cuenta con un importante grado de desarrollo urbano que, sin perjuicio de determinadas salvedades, procede consolidar en su actual situación. Algunas de esas salvedades son concretamente las siguientes:

— Dar continuidad al proceso de reforma y rehabilitación urbana del espacio situado detrás de la iglesia y el convento de San Francisco, ocupado en su día, cuando menos parcialmente, por la Alhóndiga.

Prozesu hori osatzeak justifikatu egiten du: Gaur egun dauden zenbait eraikin eraistea; atzealdean trenbidearekin muga egingo duen beste bide bat gauzatzea trenbidearekiko paralelo; eta ekipamendu-erabileretarako beste eraikin bat eraikitzea. Gisa horretako aurreikuspenekin jarraipena ematen zaie Plan Orokor hau onartu aurretik indarrean dagoen hiri-plangintzan ingurune honetarako planteatutako aurreikuspenei.

— Gaur egun dauden eraikin batzuk ordezkatzeko prozesuei eta hiri-berrikuntzako prozesuei jarraipena ematea, azken urte hauetan gauzatutakoaren ildotik. Une honetan, arreta berezia jarri behar zaie San Frantzisko Pasealekuko 20 eta 22 zenbakietako lursailetan eta Pasealeku horretako 32, 34 eta 36 zenbakietako lursailetan planteatutako jardunei.

— RENFEren geltokiaren parean dagoen espazioa biziberritzeko prozesuari ekitea, kalitatezko espazio publiko adierazgarria osatzearen.

Helburu hori ondoren adierazten diren beste bi helburu hauekin osatzen da:

Batetik, geltoki intermodala antolatzea (autobusak eta trenbidea besteak beste). Egokiak izan daitezkeen beste aukera batzuk baztertu gabe, RENFEren geltokiaren eraikinean geltoki intermodalaren bulegoak eta beste jarduera osagarri batzuk kokatzeko aukeraren bideragarritasuna aztertzea proposatu da.

Bestetik, zorupean garaje bat eraikitzea. Garaje horrek helburu osagarriak izango litzukete, hala nola autobusetarako aparkalekua, trenaren zein autobusen erabiltzaileentzako aparkalekua, udalerriko txandakako aparkalekua, eta udalerriko herritarrentzako aparkalekua.

— Beotibar pilotalekuaren aprobetxamendua optimizatzeko egokiak izan daitezkeen neurri eta proiektu zehatzak sustatzea.

### III. EGITURAZKO HIRIGINTZA ERREGIMENA

#### 1. Kalifikazio globala.

1.1. «A.20 Eraikuntza Irekiko Bizitegi Zona». (Azalera: 76.029 m<sup>2</sup>).

1.1.1. «12.3 San Frantzisko Pasealekua, 20 - 22» (azpi)esparrua.

#### A. Eraikuntza-baldintzak.

##### a) Hirigintza-eraikigarritasuna:

— Sestra gainean: 2.088 m<sup>2</sup>(s).

— Sestrapean: 1.581 m<sup>2</sup>(s).

##### b) Eraikuntzako gehieneko solairu kopurua:

— Sestra gainean: VI.

— Sestrapean: III.

#### B. Erabilera-baldintzak.

a) Plan Orokor honetan «A.20» zona globalerako ezarritako berezko erabilera-baldintza orokorrak izango dira.

Testuinguru horretan, eta izaera orokorrez, baimendu egiten da 1., 2. eta 3. kategoriako merkataritza-erabilerak ezartzea esparruko bizitegi-lursailetan («a» lursailetan). Aurretik dauden 3. kategoriako merkataritza-erabilerak finkatu egingo dira, baldin eta Plan Orokor hau indarrean jarri aurretik indarrean zegoen hiri-plangintzan ezarritako irizpideen arabera ezarri badira eta beharrezko baimenak badituzte. Edonola ere, 3. kategoriako beste merkataritza-erabilera batzuk ezarri nahi izanez gero, aurretik erabilera horien egokitasuna justifikatuko duen

La colmatación de ese proceso justifica el derribo de determinadas edificaciones existentes, la ejecución de un nuevo vial trasero en colindancia con ferrocarril, y de trazado sensiblemente paralelo a éste, y la construcción de una nueva edificación destinada a usos de equipamiento. Con ese tipo de previsiones se da continuidad a las planteadas en ese entorno en el planeamiento urbanístico vigente con anterioridad a este Plan General.

— Dar continuidad a procesos de reforma urbana y sustitución de determinadas edificaciones residenciales existentes, en línea con lo ejecutado a lo largo de estos últimos años. En este momento, merecen una particular atención a ese respecto las actuaciones planteadas en, por un lado, las parcelas números 20 y 22 del Paseo San Francisco, y, por otro, los números 32, 34 y 36 de ese mismo Paseo.

— Abordar el proceso de regeneración urbana del espacio situado frente a la estación de RENFE, con el fin de crear un espacio público significativo y de calidad.

Ese objetivo se complementa con los otros dos que se exponen a continuación.

1/1000 ESKALA

12. SAN FRANCISCO  
**12.4 PASEO SAN FRANCISCO 32-34-36**



ESCALA 1/1000 ESKALA



- |                                 |   |                                    |
|---------------------------------|---|------------------------------------|
| JARDUN INTEGRATU ESPARRUA 9 Zb. |  | AMBITO DE ACTUACIÓN INTEGRADA Nº 9 |
| ANTOLAMENDUZ KANPOKO ERAIKINAK  |  | EDIFICIOS FUERA DE ORDENACIÓN      |

GRÁFICO 4. GRAFIKOA  
**CONDICIONES DE EJECUCIÓN  
GAUZATZEKO BALDINTZAK**

«13. LASKOAIN»  
HIRIGINTZA ESPARRUKO ARAU PARTIKULARRA

I. AZALERA ETA MUGAKETA

Oria ibaiaren, hirigune historikoaren eta San Frantzisko Pasealekuaren artean dago esparrua. Guztira 117.631 m<sup>2</sup> inguruko azalera du. Plan Orokor honetako «5. Planoak» dokumentuko «II.1.4 Lurzoruaren sailkapena. Hirigintza Esparruen Mugaketa (hiri-ingurunea)» planoan islatzen da esparruaren mugaketa.

II. ANTOLAMENDU IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK

Batez ere bizitegi izaera duen esparrua den arren, beste errealitate batzuekin osatuta dago, eta horien artean Zezen Plaza nabarmentzen da. Oro har, gaur egungo egoeran finkatzen da, ondoren adierazten diren salbuespenekin.

Etxebizitzaren batez besteko tamainari, erabileren erregimenari, egitura-antolamenduaren eta antolamendu xehatuaren arteko aldeari, eta abarri buruz Plan Orokor honetan ezarritako irizpideak aplikatzearen kalterik gabe, Plan hau onartu aurretik indarrean dauden Plangintzako Arau Subsidiarioetan hirigintza-erakigarritasunari eta eraikuntzako parametro formalei dagokienez ezarritakoaren arabera (berregokitzen txiki batzuekin) finkatuko da gaur egungo egoera —Arau Subsidiarioen aldaketetan eta horien garapenean sustatutako eta onartutako plangintzetan ezarritakoa ere hartuko da kontuan—.

Bestalde, salbuespen horiek honako helburuekin, bestek beste, lotzen dira:

— Plan Orokor hau onartu aurretik indarrean dauden Arau Subsidiarioetan ezarritako aurreikuspenak finkatzea, Laskoain kalearen trazaduraren erregularizazioari dagokionez —kale horren 5 zenbakiko eraikuntzaren lerrokaduren erregularizazioa barne—.

— San Frantzisko Pasealekuaren 37 zenbakiko lursailaren hirigintza-erregimena berregokitzea.

— Zezen Plazaren aprobetxamendua optimizatzeko egokiak izan daitezkeen neurri eta proiektu zehatzak sustatzea.

— Esparruko komunikazio-sarea oinezkoen, bizikleten eta ibilgailuen trafikoaren alorrean udalerrri osorako hartzen diren erabakietara egokitzea, baita horren tratamendua eta urbanizazioa zehazteko sustatzen diren proiektuetan ezarritako proposamenetara ere.

III. EGITURAZKO HIRIGINTZA ERREGIMENA

1. Kalifikazio globala.

1.1. «A.20 Eraikuntza Irekiko Bizitegi Zona». (Azalera: 113.656 m<sup>2</sup>).

1.1.1. «13.1 San Frantzisko Pasealekua, 37» (azpi)esparrua.

A. Eraikuntza-baldintzak:

a) Hirigintza-erakigarritasuna:

— Sestra gainean: 2.847 m<sup>2</sup>(s).

— Sestrapean: 3.280 m<sup>2</sup>(s).

b) Eraikuntzaren forma arautzen duten parametroak:

Parametro horiek gaur egun inguruan dauden eraikuntzen parametroen baliokideak dira.

NORMA PARTICULAR DEL ÁMBITO URBANÍSTICO  
«13. LASKOAIN»

I. SUPERFICIE Y DELIMITACIÓN

Ámbito situado entre el río Oria, el Casco Histórico y el Paseo San Francisco. Tiene una superficie total de 117.631 m<sup>2</sup>. Su delimitación es la reflejada en el plano «II.1.4 Clasificación del suelo. Delimitación de Ámbitos Urbanísticos (Medio urbano)» del documento «5. Planos» de este Plan General.

II. CRITERIOS Y OBJETIVOS GENERALES DE ORDENACIÓN

Se trata de un Ámbito de carácter básicamente residencial, complementado con otras realidades, entre las que cabe destacar la Plaza de Toros, que en términos generales y sin perjuicio de las salvedades que se indican a continuación, se consolida en su situación actual.

Sin perjuicio de la aplicación de los criterios establecidos en este Plan General en materia de tamaño medio de vivienda, régimen de usos, diferenciación de la ordenación estructural y promenorizada, etc., en lo referente concretamente a la edificabilidad urbanística y a los parámetros formales de la edificación, los términos de dicha consolidación son básicamente y con reajustes limitados los establecidos en las Normas Subsidiarias de Planeamiento vigentes con anterioridad a la aprobación de este Plan, incluidas las modificaciones de las mismas y el planeamiento promovido y aprobado en su desarrollo.

Por su parte, las citadas salvedades son las relacionadas con, entre otros, los objetivos siguientes:

— Consolidación de las previsiones establecidas en las Normas Subsidiarias vigentes con anterioridad a la aprobación de este Plan General en lo referente a la regularización del trazado de la calle Laskoain, con la consiguiente regularización de las alineaciones de la edificación ubicada en el número 5 de la misma.

— Reajuste del régimen urbanístico de la parcela situada en el Paseo San Francisco n.º 37.

— Incentivación de las medidas y proyectos específicos que se estimen adecuados a los efectos de optimizar el aprovechamiento de la Plaza de Toros.

— Adecuación de la red de comunicaciones del Ámbito a las decisiones que se adopten en materia de tráfico peatonal, ciclista y rodado en el conjunto del municipio, incluidas las propuestas establecidas en los proyectos que se promuevan a los efectos de la determinación de su tratamiento y urbanización.

III. RÉGIMEN URBANÍSTICO ESTRUCTURAL

1. Calificación global.

1.1. Zona «A.20 Residencial de Edificación Abierta». (Superficie: 113.656 m<sup>2</sup>).

1.1.1. (Sub)ámbito «13.1 Paseo San Francisco 37».

A. Condiciones de edificación:

a) Edificabilidad urbanística:

— Sobre rasante: 2.847 m<sup>2</sup>(t).

— Bajo rasante: 3.280 m<sup>2</sup>(t).

b) Parámetros reguladores de la forma de la edificación:

Dichos parámetros serán equivalentes a los de las edificaciones existentes en el entorno.

## B. Erabilera-baldintzak.

a) Plan Orokor honetan «A.20» zona globalerako ezarritako berezko erabilera-baldintza orokorrak izango dira.

b) Bizitegi-eraikigarritasunaren erregimen juridikoa:

— Sustapen libreko bizitegi-eraikigarritasuna (%100): 2.352 m<sup>2</sup>(s).

— Guztizko bizitegi-eraikigarritasuna: 2.352 m<sup>2</sup>(s).

c) Sestra ganean proiektatzen den eraikigarritasunaren gainerakoa hirugarren sektoreko erabileretara zuzenduko da.

## 1.1.2. Hirigintza-esparruaren gainerakoa.

## A. Eraikuntza-baldintzak.

a) Hirigintza-eraikigarritasuna:

— Gaur egun dauden eta finkatzen diren hirigintza-garapenak:

\* Sestra ganean: Salbuespen zehatz batekin, eraikuntzako udal-lizentzian kasuak kasu ezarritako baldintzetan eraiki ziren gaur egungo eraikinen lerrokaduraren eta formaren (altueraren eta solairu kopuruaren) emaitzazkoa da baimentzen den eraikigarritasuna. Finkatu egiten dira eraikin horiek.

Salbuespen horrek 1989ko Arau Subsidiarioetan aurreikusitakoak baino solairu kopuru txikiagoa eta altuera txikiagoa duten gaur egungo eraikinetan du eragina —Arau Subsidiario horietan onartu egiten dira parametro horiek bete arteko jasodurak—. Kasu horietan, hurrengo «b» idatz-zatian aipatzen diren parametro formal horien arabera eraikigarritasuna baimentzen da.

Aurreko aurreikuspenak ez dira hedatuko antolamenduz kanpo deklaraturako eraikinetara edo eraikinen zatietara. Edonola ere, baimendutakoa baino solairu kopuru eta altuera handiago izateaz bestelako kausa baten ondorioz antolamenduz kanpo deklaraturakoak izango dira (normalean eraikina finkatutako lerrokaduretara ez egokitzearekin lotzen da kausa hori).

\* Sestraperan: Eraiki daitezkeen bi (2) soto-solairuri lotzen zaion eraikigarritasuna, betiere Plan honetako «2.1 Hirigintza Arau Orokorrak» dokumentuaren 22. artikuluan aditzera ematen diren baldintzetan.

— «a.20.1/13» lursaila (Laskoain kalea, 5 (Gaur egun dagoenaren ordeza eraiki beharreko eraikin berri bat da; haatik, haren lerrokadurak erregularizatu ostean eraiki ahal izango da)):

\* Sestra ganean: 1.140 m<sup>2</sup>(s).

\* Sestraperan: 570 m<sup>2</sup>(s), Plan honetako «2.1 Hirigintza Arau Orokorrak» dokumentuaren 22. artikuluan ezartzen diren baldintzetan eraiki daitezkeenak.

— Etxadi-patioa, Pedro Tolosa pasealekura (1-7), Oria kalera (2 - 16) eta San Frantzisko Atzekalera (43 A eta B, Oria hotelaren lursailarekin bat egin arte) ematen duten eraikinen artean kokatzen dena: Bi (2) soto-solairuri lotzen zaion sestrapeko eraikigarritasuna, patio horretan eraiki daitezkeen hedadura osoan.

b) Eraikuntzaren forma arautzen duten parametroak: Eraikuntzaren solairu kopurua eta altuera.

— Gaur egun dauden eta finkatzen diren hirigintza-garapenak:

\* Sestra ganean: Antolamenduz kanpo deklaraturako eraikuntzen edo horien zatien albuespena eta ondoren adierazten den albuespena kontuan izanik, finkatu egiten dira eraikin horiek, haien gaur egungo parametroekin —altuerarekin eta solairu kopuruarekin—.

Bigarren albuespen horrek 1989ko Arau Subsidiarioetan aurreikusitakoak baino solairu kopuru txikiagoa eta altuera txikiagoa duten gaur egungo eraikinetan du eragina —Arau

## B. Condiciones de uso.

a) Las condiciones generales de uso son las propias de la zona global «A.20», establecidas en este Plan General.

b) Régimen jurídico de la edificabilidad residencial:

— Edificabilidad residencial de promoción libre (100%): 2.352 m<sup>2</sup>(t).

— Edificabilidad residencial total: 2.352 m<sup>2</sup>(t).

c) El resto de la edificabilidad proyectada sobre rasante se destina a usos terciarios.

## 1.1.2. Resto del Ámbito Urbanístico.

## A. Condiciones de edificación.

a) Edificabilidad urbanística:

— Desarrollos urbanísticos existentes y consolidados:

\* Sobre rasante: Con una concreta salvedad, la edificabilidad autorizada es la resultante de las alineaciones y de la forma (altura y número de plantas) actual del conjunto de las edificaciones existentes, construidas en las condiciones establecidas en cada caso en la correspondiente licencia municipal de edificación, y que ahora se consolidan.

Dicha salvedad incide en las edificaciones actuales que cuentan con una altura y un número de plantas inferior a los previstos en las Normas Subsidiarias de 1989, en las que se autoriza el levante hasta completar dichos parámetros. En esos casos, la edificabilidad autorizada es la asociada a esos parámetros formales, a los que se hace referencia en el siguiente apartado «b».

Las previsiones anteriores no se entenderán extendidas a las edificaciones o partes de las mismas declaradas fuera de ordenación por cualquier razón (normalmente asociada a la inadecuación de la edificación a las alineaciones fijadas para la misma) diversa de la de disponer una altura y un número de plantas superior al autorizado.

\* Bajo rasante: La edificabilidad asociada a dos (2) plantas de sótano susceptibles de construcción en las condiciones establecidas en el artículo 22 del Documento «2.1 Normas Urbanísticas Generales» de este Plan.

— Parcela «a.20.1/13» (calle Laskoain n.º 5 (Se trata de una nueva edificación a construir en sustitución de la actualmente existente, previa regularización de sus alineaciones)):

\* Sobre rasante: 1.140 m<sup>2</sup>(t).

\* Bajo rasante: 570 m<sup>2</sup>(t), susceptibles de construcción en las condiciones establecidas en el artículo 22 del Documento «2.1 Normas Urbanísticas Generales» de este Plan.

— Patio de manzana ubicado entre las edificaciones con frente a las calles Pedro de Tolosa (números 1a 7), Oria (números 2 a 16) y San Francisco Atzekalea (número 43 A y B, hasta su encuentro con la parcela del hotel Oria): Edificabilidad bajo rasante vinculada a dos (2) plantas de sótano en toda la extensión susceptible de construcción en dicho patio.

b) Parámetros reguladores de la forma de la edificación: Número de plantas y altura de edificación.

— Desarrollos urbanísticos existentes y consolidados:

\* Sobre rasante: Con la salvedad referida a las edificaciones o partes de las mismas declaradas fuera de ordenación, así como la que se indica a continuación, se consolidan esas edificaciones con sus actuales parámetros del altura y número de plantas.

La citada segunda salvedad incide en las edificaciones actuales que cuenten con una altura y un número de plantas inferior a los previstos en las Normas Subsidiarias de 1989, en las que se

Subsidiario horietan onartu egiten dira parametro horiek bete arteko jasodurak— (Bigarren salbuespena 1989ko Arau Subsidiarioetan mugatutako «RE.1 Laskoraingo zabalgunea» eremuko lursailetan izango da aplikatzekoa. Arau horietan ezarritakoaren arabera, eta adierazitako ondorioetarako, hauek dira erreferentziatzeko parametro formalak:

— Eraikuntzako gehieneko altuera, aurrealdea lehen mailako espazio publikoetara duten lursailetan (12 metroko edo gehiagoko zabalera): 18,50 m., bide publikoaren eta teiltategalaren artean neurtuta.

Kasu horietan, sestra gaineko eraikuntzak gehienez behe-solairua eta 5 goi-solairu izango ditu.

— Eraikuntzako gehieneko altuera, aurrealdea bigarren mailako espazio publikoetara duten lursailetan (12 metro baino gutxiagoko zabalera): 15,50 m, bide publikoaren eta teiltategalaren artean neurtuta.

Kasu horietan, sestra gaineko eraikuntzak gehienez behe-solairua eta 4 goi-solairu izango ditu.

Eraikinak bide bakar batera jotzen badu, eta sestra aldatu egiten bada fatxadaren zehar, fatxadako lerrokaduran zehar sestraren punturik baxuenaren eta punturik garaienaren arteko sestraren batez besteko puntuan neurtuko da altuera.

Eraikinak bi bidetara edo gehiagoetara jotzen badu, izkina edo txafлана osatuz, eraikuntzak horietan guztietan altuera bera izan dezake. Dena den, aurreko paragrafoetan adierazi den moduan neurtuko da altuera, eta fatxada guztiak fatxada bakar bat izango balitz bezala hartu ahal izango da neurketa egiteko.

Eraikinak bi bidetara edo gehiagoetara jotzen badu, izkina edo txafлана osatuz, eta bide horietako bakoitzean baimentzen den eraikuntzaren altuera desberdina bada, kalerik estuenetako fatxadaren 15 metrotan gehienez luzatu ahal izango da eraikinaren gehieneko altuera, betiere ordena desberdineko bi bideen lerrokadurak elkartzen diren puntutik neurtuta.

Eraikinak bi bidetara edo gehiagoetara jotzen badu, izkina edo txafлана osatu gabe, aurrealde bakoitzaren berezko altueren arabera erregulatuko da eraikuntza, bi eraikin desberdin izango bailiran. Hortaz, eta ondorio horietarako, bi zati berdinetan banatu beharko da fatxada bakoitzarekiko sakonera eraikigarria.

Antolatutako sakonera eraikigarria gaintitzen duten lursail-etako espazioak eta etxadiko patioak behe-solairuko altueran eraiki ahal izango dira, baldin eta espazio hori pasabide edo berdegune gisa gordetzen ez bada.

Edonola ere, eta adierazitakoaren arabera, finkatu egiten dira aurreko parametro formalak gaintitzen dituzten eremu horretako eraikuntzak, egungo altueran eta solairu kopuruan).

\* Sestrapean: 2 soto-solairu.

— «a.20.1/13» lursaila (Laskoain kalea, 5):

\* Sestra gaineko solairu kopurua: VI.

\* Sestrapeko solairu kopurua: III.

— Pedro Tolosa pasealekura (1-7), Oria kalera (2 - 16) eta San Frantzisko Atzekalera (43, Oria hotelaren lursailarekin bat egin arte) ematen duten eraikinaren artean kokatzen den etxadipatioa: Bi (2) soto-solairu, patio horretan eraiki daitekeen hedadura osoan.

B. Erabilera-baldintzak.

Plan Orokor honetan «A.20» zona globalerako ezarritako berezko erabilera-baldintza orokorrak izango dira.

autoriza el levante hasta completar dichos parámetros (La referida segunda salvedad se entenderá de aplicación en las parcelas ubicadas en el área «RE.1 Ensanche de Laskorain» delimitada en las citadas Normas Subsidiarias de 1989. De conformidad con lo establecido en éstas, los parámetros formales de referencia a los efectos indicados son concretamente los siguientes:

— Altura máxima de edificación en las parcelas con frente a espacios públicos de primer orden (anchura igual o superior a 12 m): 18,50 m, medidos entre la vía pública y el alero.

El número máximo de plantas de edificación sobre rasante en esos casos es de planta baja y 5 plantas altas.

— Altura máxima de edificación en las parcelas con frente a espacios públicos de segundo orden (anchura inferior a 12 m): 15,50 m, medidos entre la vía pública y el alero.

El número máximo de plantas de edificación sobre rasante en esos casos es de planta baja y 4 plantas altas.

Si el edificio da frente solamente a una vía y la rasante experimenta variaciones a lo largo de la fachada, la altura se tomará desde el punto de rasante media entre la más baja y la más alta de la que se den a lo largo de la alineación de fachada.

Si el edificio da frente a dos o más vías del mismo orden formando esquina o chaflán pudiendo la edificación, por consiguiente, alcanzar la misma altura en todas ellas, la altura se medirá como se ha dicho en los párrafos precedentes procediendo a operar sobre el conjunto de las fachadas desarrolladas como si fuera una sola.

Si las vías —dos o más— a que da frente un edificio formando esquina o chaflán, tienen distinta altura reguladora permitida, la altura mayor podrá correrse por la calle o calles más estrechas en una longitud de fachada máxima de 15 metros, medida desde el punto de intersección de las alineaciones de las vías de distinto orden.

Si el edificio da frente a dos vías de distinto orden de altura reguladora permitida, sin formar esquina o chaflán, la edificación se regulará por las alturas propias de cada frente, como si de dos edificios se tratase, dividiendo en dos partes iguales, a estos efectos, la profundidad edificable respecto de cada fachada.

Serán edificables en la altura de la planta baja los patios de manzana y espacios de las parcelas que excedan de la profundidad edificable ordenada en los casos en los que no se reserva tal espacio como paso o zona verde.

En todo caso, conforme a lo indicado, se consolidan las edificaciones existentes en ese área que superen los anteriores parámetros formales, con sus actuales altura y número de plantas).

\* Bajo rasante: 2 plantas de sótano.

— Parcela «a.20.1/13» (calle Laskoain n.º 5):

\* Número de plantas sobre rasante: VI.

\* Número de plantas bajo rasante: III.

— Patio de manzana ubicado entre las edificaciones con frente a las calles Pedro de Tolosa (números 1 a 7), Oria (números 2 a 16) y San Francisco Atzekalea (número 43, hasta su encuentro con la parcela del hotel Oria): Dos (2) plantas de sótano en toda la extensión susceptible de construcción en dicho patio.

B. Condiciones de uso.

Las condiciones generales de uso son las propias de la zona global «A.20», establecidas en este Plan General.

Testuinguru horretan, eta izaera orokorrez, baimendu egiten da 1., 2. eta 3. kategoriako merkataritza-erabilerak ezartzea esparruko bizitegi-lursailetan («a» lursailetan). Aurretik dauden 3. kategoriako merkataritza-erabilerak finkatu egingo dira, baldin eta Plan Orokor hau indarrean jarri aurretik indarrean zegoen hiri-plangintza ezarritako irizpideen arabera ezarri badira eta beharrezko baimenak badituzte. Edonola ere, 3. kategoriako beste merkataritza-erabilera batzuk ezarri nahi izanez gero, aurretik erabilera horien egokitasuna justifikatuko duen Plan Berezia egin eta onartu beharko da nahitaez. Plan Bereziak, bestalde, trafikoaren alorrean indarrean dauden irizpideetara egokitzen diren finkatuko du, eta merkataritza-erabilera horien ondoriozko eragin kaltegarririk ez dagoela justifikatu beharko du.

Bestalde, jardueraren ezaugarria dela kausa, azalera handia behar duten eta inguruko bizitegi-erabilerei eragozpenak sortzen ez dizkieten goragoko kategoriako merkataritza-erabilerak (altzari-dendak, etxetresna elektrikoen dendak, eta produktuak erakusteko azalera handiak behar dituzten antzekoak) baimendu ahal izango dira, plangintza xehatuaren bitartez. Alabaina, aurretik horien ezarpenaren egokitasuna justifikatu beharko da, baita horien ondoriozko eragin kaltegarririk ez dagoela ere.

Era berean, merkataritza-erabilerak beste mota bateko lursailetan ezarriko badira, Plan honen Hirigintza Arau Orokorretan horietarako ezartzen diren irizpide orokorrak bete beharko dira.

1.2. «E.10 Bide Komunikazioen Sistema Orokorra» Zona. (Azalera: 3.975 m<sup>2</sup>).

Plan honetako «2.1. Hirigintza Arau Orokorra» dokumentuan ezartzen dira, izaera orokorrez, zona honetan eraikitzeko eta erabiltzeko baldintzak.

2. *Tokiko sistemen sarea arautzeko baldintza orokorrak.*

Ez dira tokiko sistemen sarea arautzeko baldintza orokorrak ezartzen.

3. *Hirigintza-sailkapena.*

Esparruko lur guztiak hiri-lurzoru gisa sailkatu dira.

4. *Antolamendu xehatua zehazteko erregimena.*

Plan Orokor honetan zehazten da esparruaren antolamendu xehatua.

5. *Programatzeko eta gauzatzeko erregimen orokorra.*

Ez da arlo horretako aurreikuspen zehatzik ezarri.

#### IV. HIRIGINTZA ERREGIMEN XEHATUA

1. *Kalifikazio xehatua.*

A. Antolatutako (azpi)zona xehatuko tipologiak zehazteko eta horiek mugatzeko baldintzak.

Plan Orokor honetako «5. Planoak» dokumentuko «III.1. Zonifikazio Xehatua» planoan eta Arau Partikular honetako grafikoetan islatzen diren baldintzak dira.

B. Antolatutako lursailen eraikigarritasun fisikoa.

a) «13.1 San Frantzisko Pasealekua, 37» (azpi)esparrua: — «a.20.1/13.1» lursaila:

En ese contexto y con carácter general, se autoriza la implantación de usos comerciales de 1.ª, 2.ª y 3.ª categoría en las parcelas residenciales (parcelas «a») del ámbito. En todo caso, al tiempo que se consolidan los preexistentes, siempre que hayan sido implantados de conformidad con los criterios establecidos en el planeamiento urbanístico vigente con anterioridad a la entrada en vigor de este Plan General, y cuenten con las debidas autorizaciones, la implantación de nuevos usos comerciales de 3.ª categoría en parcelas residenciales se condiciona a la previa formulación y aprobación del correspondiente Plan Especial en el que se justifique la idoneidad de los mismos, incluida su adecuación a los criterios vigentes en el municipio en materia de tráfico, y la inexistencia de afecciones perjudiciales derivadas de los mismos.

Por su parte, los usos comerciales de categoría superior que por su específica actividad precisen de una gran superficie (por ejemplo, mueblerías, tiendas de electrodomésticos y similares que requieran una importante superficie de exposición de productos) pero no generen molestias a los usos residenciales colindantes podrán ser autorizadas mediante la formulación del correspondiente planeamiento pormenorizado, previa justificación en él tanto de la idoneidad de su implantación, como de la inexistencia de afecciones perjudiciales derivadas de las mismas.

A su vez, la implantación de usos comerciales en otro tipo de parcelas se adecuará los criterios generales establecidos para las mismas en las Normas Urbanísticas Generales de este Plan.

1.2. Zona «E.10 Sistema General de Comunicación Viaria». (Superficie: 3.975 m<sup>2</sup>).

Las condiciones de edificación y uso de esta zona son las establecidas con carácter general para la misma en este Plan (Documento «2.1 Normas Urbanísticas Generales»).

2. *Condiciones generales reguladoras de la red de sistemas locales.*

No se establecen condiciones estructurales reguladoras de la red de sistemas locales.

3. *Clasificación urbanística.*

La totalidad de los terrenos del ámbito se clasifican como suelo urbano.

4. *Régimen de determinación de la ordenación pormenorizada.*

La ordenación pormenorizada del ámbito se determina en este plan general.

5. *Régimen general de programación y ejecución.*

No se establecen previsiones particulares en la materia.

#### IV. RÉGIMEN URBANÍSTICO PORMENORIZADO

1. *Calificación pormenorizada.*

A. Condiciones de determinación de las tipologías de (sub)zonas pormenorizadas ordenadas, y de delimitación de las mismas.

Dichas condiciones son las reflejadas en el plano «III.1 Zonificación Pormenorizada» incluido en el documento «5. Planos» de este Plan General, así como en los gráficos incluidos en esta Norma Particular.

B. Edificabilidad física de las parcelas ordenadas.

a) (Sub)ámbito «13.1 P.º San Francisco 37»: — Parcela «a.20.1/13.1»:

\* Sestra gainean:

\* 1. multzoa: 1.500 m<sup>2</sup>(s).

\* 2. multzoa: 1.347 m<sup>2</sup>(s).

\* Sestrapean: 3.280 m<sup>2</sup>(s).

b) «a.20.1/13» lursaila (Laskoain kalea, 5):

— Sestra gainean: 1.140 m<sup>2</sup>(s).

— Sestrapean: 570 m<sup>2</sup>(s).

c) Pedro Tolosa pasealekura (1-7), Oria kalera (2 - 16) eta San Frantzisko Atzekalera (43, Oria hotelaren lursailarekin bat egin arte) ematen duten eraikinen artean kokatzen den etxadipatioa: Bi (2) soto-solairuri lotzen zaion sestrapeko eraikigarritasuna, patio horretan eraiki daitekeen hedadura osoan.

d) Hirigintza-esparruaren gainerako lursailak.

— Sestra gainean: Salbuespen zehatz batekin, eraikuntzako udal-lizentzian kasuak kasu ezarritako baldintzetan eraiki ziren gaur egungo eraikinen lerroakaduraren eta formaren (altueraren eta solairu kopuruaren) emaitzakoa da baimentzen den eraikigarritasuna. Finkatu egiten dira eraikin horiek.

Salbuespen horrek 1989ko Arau Subsidiarioetan aurreikusitakoak baino solairu kopuru txikiagoa eta altuera txikiagoa duten gaur egungo eraikinetan du eragina —Arau Subsidiario horietan onartu egiten dira parametro horiek bete arteko jasodurak—. Kasu horietan, aurreko «III». epigrafean aipatutako parametro formal horien araberako eraikigarritasuna baimentzen da.

Aurreko aurreikuspenak ez dira hedatuko antolamenduz kanpo deklaraturako eraikinetara edo eraikinen zatietara. Edonola ere, baimendutakoa baino solairu kopuru eta altuera handiagoa izateaz bestelako kausa baten ondorioz antolamenduz kanpo deklaraturakoak izango dira (normalean eraikina finkatutako lerroakadurara ez egokitzearekin lotzen da kausa hori).

Lursailetan dauden eraikuntzen altueraren eta solairu kopuruaren emaitzakoa da eraikigarritasuna eta/edo horiekin lotzen da. Finkatu egiten da Plan Orokor hau onartu aurretik indarrean dagoen hiri-plangintzan ezarritako baldintzetan eta ezaugarrietan.

— Sestrapean: Lursail bakoitzean bi (2) soto-solairu eraiki daitezke —sestra gaineko eraikuntzaren oinplanoko okupazio berarekin—, betiere Plan honetako «2.1. Hirigintza Arau Orokorrak» dokumentuaren 22. artikuluan aditzera emandako baldintzetan.

C. Lursailen eraikuntzaren forma arautzen duten baldintzak. Eraikuntzaren solairu kopurua eta altuera.

a) «13.1 San Frantzisko Pasealekua, 37» (azpi)esparrua:

Arau Partikular honetako grafikoetan islatzen diren baldintzak izango dira.

b) «a.20.1/13» lursaila (Laskoain kalea, 5):

Arau Partikular honetako grafikoetan islatzen diren baldintzak izango dira.

c) Pedro Tolosa pasealekura (1-7), Oria kalera (2 - 16) eta San Frantzisko Atzekalera (43, Oria hotelaren lursailarekin bat egin arte) ematen duten eraikinen artean kokatzen den etxadipatioa: Bi (2) soto-solairu, patio horretan eraiki daitekeen hedadura osoan.

d) Hirigintza-esparruaren gainerako lursailak.

— Sestra gainean:

Antolamenduz kanpo deklaraturako eraikuntzen edo horien zatien salbuespena eta ondoren adierazten den salbuespena kontuan izanik, finkatu egiten dira eraikin horiek, haien gaur egungo parametroekin —altuerarekin eta solairu kopuruarekin—.

\* Sobre rasante:

\* Bloque 1: 1.500 m<sup>2</sup>(t).

\* Bloque 2: 1.347 m<sup>2</sup>(t).

\* Bajo rasante: 3.280 m<sup>2</sup>(t).

b) Parcela «a.20.1/13» (calle Laskoain n.º 5):

— Sobre rasante: 1.140 m<sup>2</sup>(t).

— Bajo rasante: 570 m<sup>2</sup>(t).

c) Patio de manzana ubicado entre las edificaciones con frente a las calles Pedro de Tolosa (números 1a 7), Oria (números 2 a 16) y San Francisco Atzekalea (número 43, hasta su encuentro con la parcela del hotel Oria): Edificabilidad bajo rasante vinculada a dos (2) plantas de sótano en toda la extensión susceptible de construcción en dicho patio.

d) Restantes parcelas del Ámbito Urbanístico.

— Sobre rasante: Con una concreta salvedad, la edificabilidad autorizada es la resultante de las alineaciones y de la forma (altura y número de plantas) actual de las edificaciones existentes en dichas parcelas, construidas en las condiciones establecidas en cada caso en la correspondiente licencia municipal de edificación, y que ahora se consolidan.

Dicha salvedad incide en las edificaciones actuales que cuentan con una altura y un número de plantas inferior a los previstos en las Normas Subsidiarias de 1989, en las que se autoriza el levantar hasta completar dichos parámetros. En esos casos, la edificabilidad autorizada es la asociada a esos parámetros formales, a los que se ha hecho referencia en el anterior epígrafe III.

Las previsiones anteriores no se entenderán extendidas a las edificaciones o partes de las mismas declaradas fuera de ordenación por cualquier razón (normalmente asociada a la inadecuación de la edificación a las alineaciones fijadas para la misma) diversa de la de disponer una altura y un número de plantas superior al autorizado.

Edificabilidad resultante y/o asociada a la altura y al número de plantas de las edificaciones existentes en las dichas parcelas, que se consolidan en las condiciones y características establecidas en el planeamiento urbanístico vigente con anterioridad a la aprobación de este Plan General.

— Bajo rasante: Se corresponde con la edificabilidad asociada a dos (2) plantas de sótano susceptibles de construcción en cada parcela con igual ocupación en planta que la edificación sobre rasante, en las condiciones expuestas en el artículo 22 del Documento «2.1 Normas Urbanísticas Generales» de este Plan.

C. Condiciones reguladoras de la forma de la edificación de las parcelas. Altura y número de plantas de la edificación.

a) (Sub)ámbito «13.1 P.º San Francisco 37»:

Dichas condiciones son las reflejadas en los gráficos incluidos en esta Norma Particular.

b) Parcela «a.20.1/13 (calle Laskoain n.º 5)»:

Dichas condiciones son las reflejadas en los gráficos incluidos en esta Norma Particular.

c) Patio de manzana ubicado entre las edificaciones con frente a las calles Pedro de Tolosa (números 1a 7), Oria (números 2 a 16) y San Francisco Atzekalea (número 43, hasta su encuentro con la parcela del hotel Oria): Dos (2) plantas de sótano en toda la extensión susceptible de construcción en dicho patio.

d) Restantes parcelas del Ámbito Urbanístico.

— Sobre rasante:

Con la salvedad referida a las edificaciones o partes de las mismas declaradas fuera de ordenación, así como la que se indica a continuación, se consolidan esas edificaciones con sus actuales parámetros del altura y número de plantas.



Bigarren salbuespen horrek 1989ko Arau Subsidiarioetan aurreikusitakoak baino solairu kopuru txikiagoa eta altuera txikiagoa duten gaur egungo eraikinetan du eragina —Arau Subsidiario horietan onartu egiten dira parametro horiek bete arteko jasodurak—. Aurreko III. epigrafean azaldutako parametroak aplikatuko dira.

— Sestrapean: 2 soto-solairu.

D. Eraikitze eta lursailak zatitzeko baldintzak.

«a.20.1/13.1» lursailaren sestra gainean antolatutako eraikuntza-multzoetako bakoitza eraikuntza-proiektu bereizi baten mende egongo da, bidezko eraikuntzako udal-lizentzia lortzeko. Sestrapean aurreikusten den eraikuntza, berriz, eraikuntza-proiektu bakar baten mende izango da.

Proiektatzen den hirigintza-antolamendua gauzatzearen tesuinguruan ezarriko dira eraikuntza-multzo horien lursailen zatitze juridikorako irizpideak, bai jardun integratuko esparruaren Urbanizatze Jardun Programan, bai gauzatze-unitatearen lursailak zatitzeko proiektuan.

«13.1 S. Frantzisko pasealekua, 37» (azpi)esparruan aurreikusten den eraikuntza berriaren fatxaden formalizazio arkitektonikoan, ordezkatu beharkeko egungo eraikuntzaren fatxadek duten konposizio-ezaugarriak eta estilo-ezaugarriak hartuko dira kontuan, eta kokatzen deneko hiri-ingurunearekin harmonizatze irizpideak hartuko dira aintzat.

E. Antolatutako (azpi)zona xehatuetako erabilera-baldintzak.

a) Plan Orokor honetako «2.1. Hirigintza Arau Orokorrak» dokumentuan, (azpi)zona horietako bakoitzerako ezarzen dira izaera orokorrean erabilera-baldintza horiek.

b) Bizitegi-eraikigarritasunaren erregimen juridikoa:

— «13.1 San Frantzisko Pasealekua, 37» (azpi)esparruko bizitegi-lursailak.

\* «a.20.1/13.1» lursaileko 1. multzoa:

Lursailaren bizitegi-eraikigarritasun osoa  $-1.200 \text{ m}^2$  (s) — da sustapen librekoa.

\* «a.20.1/13.1» lursaileko 2. multzoa:

Lursailaren proiektatzen den bizitegi-eraikigarritasun osoa da sustapen librekoa.

— «a.20.1/13» bizitegi-lursaila (Laskoain kalea, 5).

Lursail horren bizitegi-eraikigarritasun osoa sustapen libreko erregimenekoa da.

c) Hirugarren sektoreko erabileretara zuzentzen den sestra gaineko hirigintza-eraikigarritasuna, atariak barne:

— «13.1» (azpi)esparrua:

\* «a.20.1/13.1» lursaileko 1. multzoa:  $300 \text{ m}^2$ (s).

\* «a.20.1/13.1» lursaileko 2. multzoa:  $195 \text{ m}^2$ (s).

\* Guztira:  $495 \text{ m}^2$ (s).

— «a.20.1/13» lursaila (Laskoain kalea, 5):  $190 \text{ m}^2$ (s).

— Azkoitia plazan z/g, Gudari, Samaniego eta Zumalakarregi kaleen artean kokatzen den lursailaren eraikigarritasun osoa hirugarren sektoreko erabileretara zuzenduko da («b.20» lursaila).

F. Jabari-baldintza partikularrak.

— «a.20.1/13.1» lursailaren sestrapean aurreikusten den eraikuntza, bestalde, aurreikusten den bide berriaren azpitik jarraipena izateko beharrezko mekanismo juridikoen zehaztapenarekin osatuko da —aurreikusten den bide berri horrek bereizi egiten ditu lursail horretan sestra gainean proiektatzen

La citada segunda salvedad incide en las edificaciones actuales que cuenten con una altura y un número de plantas inferior a los previstos en las Normas Subsidiarias de 1989, en las que se autoriza el levante hasta completar dichas previsiones; los parámetros de aplicación a ese respecto son los expuestos en el anterior epígrafe III.

— Bajo rasante: 2 plantas de sótano.

D. Condiciones de edificación y parcelación.

Cada uno de los bloques de edificación ordenados sobre la rasante de la parcela «a.20.1/13.1» podrá ser objeto de un proyecto de edificación diferenciado a los efectos de la obtención de la correspondiente licencia municipal de construcción. En todo caso, la edificación prevista bajo rasante será objeto de un único proyecto de edificación.

Los criterios de parcelación jurídica de dichos bloques de edificación serán los establecidos en el contexto de la ejecución de la ordenación urbanística proyectada, bien en el correspondiente Programa de Actuación Urbanizadora del ámbito de actuación integrada, bien en el proyecto de reparcelación de la unidad de ejecución.

En la formalización arquitectónica de las fachadas de la nueva edificación prevista en el (sub)ámbito «13.1 Paseo S. Francisco 37» se tendrán en cuenta las principales características compositivas y estilísticas de las fachadas actuales de la edificación preexistente a sustituir, y se adoptarán criterios de armonización con el entorno urbano en el que se ubica.

E. Condiciones de uso de las (sub)zonas pormenorizadas ordenadas.

a) Las condiciones de uso son las establecidas con carácter general para cada una de las citadas (sub)zonas en el Documento «2.1 Normas Urbanísticas Generales» de este Plan General.

b) Régimen jurídico de la edificabilidad residencial:

— Parcelas residenciales del (sub)ámbito «13.1 P.º San Francisco 37».

\* Bloque 1 de la parcela «a.20.1/13.1»:

La totalidad de la edificabilidad residencial de la parcela  $-1.200 \text{ m}^2$ (t)- es de promoción libre.

\* Bloque 2 de la parcela «a.20.1/13.1»:

La totalidad de la edificabilidad residencial proyectada en la parcela es de promoción libre.

— Parcela residencial «a.20.1/13» (calle Laskoain n.º 5).

La totalidad de la edificabilidad residencial de esta parcela se vincula al régimen de promoción libre.

c) Edificabilidad urbanística sobre rasante destinada a usos terciarios, con inclusión de portales:

— (Sub)ámbito «13.1»:

\* Bloque 1 de la parcela «a.20.1/13.1»:  $300 \text{ m}^2$ (t).

\* Bloque 2 de la parcela «a.20.1/13.1»:  $195 \text{ m}^2$ (t).

\* Total:  $495 \text{ m}^2$ (t).

— Parcela «a.20.1/13» (calle Laskoain n.º 5):  $190 \text{ m}^2$ (t).

— La totalidad de la edificabilidad de la parcela ubicada en la plaza Azkoitia s/n, entre las calles Gudari, Samaniego y Zumalakarregi, se destina a usos terciarios (parcela «b.20»).

F. Condiciones particulares de dominio.

— La construcción de la edificación prevista bajo la rasante de la parcela «a.20.1/13.1» será complementada con la determinación de los mecanismos jurídicos necesarios para posibilitar su continuidad por debajo del nuevo vial previsto, que separa los dos bloques proyectados sobre rasante en esa parcela.

diren bi multzoak—. Horretarako, bide hori jabetza publiko gisa hartu ahal izango da edo erabilera publikoko zortasuna formulatu ahal izango da; edonola ere, bide hori erabilera publikokoa izango da tarte osoan.

Baimendu egiten da sestrapean aurreikusitako garajerako ibilgailuen sarbidea «a.20.1/13.1» lursailaren barrutik bertatik egitea. Sarbide-arrapala proiektatutako eraikuntzak okupatzen ez dituen lur pribatueta zein eraikuntza horren beraren behesolairuan koka daiteke. Behin betiko irtenbidea edozein izanik ere, arrapala hori baldintza egokietan kokatu eta gaitu beharko da, arrapalak inguruko espazio publikoan ahalik eta inpakturik txikiena sortzeko.

Edonola ere, ondoren aditzera ematen diren beste bi baldintza horiek posible diren eta betetzen diren guztietan, gaur egun Oria kaleko 2, 4 eta 6 zenbakietan dauden lursailak (Oria hotela, etab.) satora sartzeko bidearen bitartez gaitu ahal izango da sarbidea. Horretarako, beraz, honako bi baldintza hauek bete beharko dira:

\* Sarbidea lursail horien sototik barrena sarbidea gauzatu ahal izateko bideragarritasun teknikoa, eta soto horretarako sarbidearen bideragarritasun teknikoa.

\* Xede horretarako, beharrezko sarbideko/pasabideko zortasuna formalizatzea, eta beharrezkoa jotzen bada desjabetzaren bitartez jardutea. Beharrezkoak diren kudeaketa guztiak, espedienteak formulatzearekin eta onartzearekin lotzen direnak barne, Udalak egingo ditu. Era berean, Udalak ordainduko ditu jardun horren kostu ekonomiko guztiak.

«a.20.1/13.1» lursailaren sotoa eta bertarako sarbidea —arlotan hartzen den eta gauzatzen den irtenbidea edozein izanik ere— sarbideko/pasabideko zortasun batekin kargatuko dira. Zortasun hori lursail eta espazio mugakide guztien aldekoa izango da, pribatuen zein publikoen aldekoa (San Frantzisko Atzekalea 39A; San Frantzisko pasealekua 35; Pedro Tolosa pasealekuaren, Oria kalearen eta San Frantzisko Atzekalearen eraikinen artean dagoen etxadi-patioko lursailak; etab.). Horrela, lursail horietan dauden eta proiektatzen diren sotoetara aurreko soto horretatik eta bertarako sarbidetik sartu ahal izango da.

Pedro Tolosa pasealekura (1-7), Oria kalera (2 - 16) eta San Frantzisko Atzekalera (43, Oria hotelaren lursailarekin bat egin arte) ematen duten eraikinen artean kokatzen den etxadi-patioaren sestrapean aurreikusten den eraikuntzaren alde —zein aurka— ere formalizatuko dira mota bereko pasabide-zortasunak.

— Gainerakoan, oro har, finkatu egingo dira jabari-baldintzak, betiere 1989ko Plangintzako Arau Subsidiarioen eta horien aldaketen esparruan ezarritako erabilera/pasabide publikoko zortasunak barne, baita dokumentu horien aurreikuspenak garatzeko eta gauzatzeko estatutako dokumentuetan ezarritakoak ere (garapen-plangintzan; onurak eta kargak banakidetzeko proiektuetan; eta abar). Plan Orokor honetan planteatutako proposamenekin bateraezinak direnak izango dira salbuespen bakarra.

## 2. Hiri-lurzoruaren kategorizazioa.

— «13.1 San Frantzisko Pasealekua, 37» (azpi)esparruko lursailak hiri-lurzoru finkatu gabeak dira, urbanizazioaren gabeziagatik eta/edo urritasunagatik.

— Hirigintza Esparruko gainerako lurak hiri-lurzoru finkatuak dira, betiere eraikuntza haztatua gehitzeagatik hiri-lurzoru finkatu gabetzat jotzeko beharrezko ezaugarriak betetzen dituztenak izan ezik.

## V. HIRIGINTZA ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZAK

Esparruaren inguruan Oria ibaia agertzearen ondoriozko eraginak hartu behar dira kontuan, bidezko ondorioak izan ditzan.

Bien mediante su consideración como de propiedad pública, bien mediante la formalización de la correspondiente servidumbre de uso público, dicho vial será en todo caso y en toda su extensión de uso público.

Se autoriza la habilitación del acceso rodado al garaje previsto bajo rasante desde el interior de la propia parcela «a.20.1/13.1», pudiendo colocarse la correspondiente rampa de acceso bien en terrenos privados no ocupados por la edificación proyectada, bien en la planta baja de ésta. Cualquiera que sea la solución definitiva, dicha rampa será ubicada y habilitada en las condiciones adecuadas para garantizar que los impactos resultantes de la misma en el espacio público del entorno sean los menores posibles.

En todo caso, siempre que resulte posible y se cumplan, entre otras, las dos condiciones que se exponen a continuación, dicho acceso podrá ser habilitado a través del actual acceso al sótano de las parcelas colindantes situadas en los números 2, 4 y 6 de la calle Oria (Hotel Oria, etc.). Esas dos condiciones son concretamente las siguientes:

\* Viabilidad técnica de la ejecución del citado acceso a través de, por un lado, el sótano de esas otras parcelas, y, por otro, el acceso a ese mismo sótano.

\* Formalización, con ese fin, de la correspondiente servidumbre de acceso/paso, previa actuación mediante expropiación en el caso de que se estime necesaria. La totalidad de las gestiones necesarias para ello, incluidas las relacionadas con la formulación y aprobación de los correspondientes expedientes, serán realizadas por el Ayuntamiento. De igual manera, la totalidad de los correspondientes costes económicos serán abonados por el Ayuntamiento.

El sótano de la parcela «a.20.1/13.1» y el acceso al mismo, cualquiera que sea la solución que se adopte y ejecute a este respecto, quedarán gravados con una servidumbre de acceso/paso a favor de la totalidad de las parcelas y espacios colindantes, tanto privados como públicos (San Francisco Atzekalea 39A; Paseo San Francisco 35; parcelas y terrenos ubicados en el patio de manzana ubicado entre las edificaciones del Paseo Pedro de Tolosa, la calle Oria y San Francisco Atzekalea; etc.). De esa manera a los sótanos existentes y/o proyectados en estas parcelas y terrenos podrá accederse a través de aquél sótano y del acceso al mismo.

Ese mismo tipo de servidumbres de paso serán formalizadas tanto a favor como en contra de la edificación prevista bajo la rasante del patio de manzana ubicado entre las edificaciones con frente a las calles Pedro de Tolosa (números 1a 7), Oria (números 2 a 16) y San Francisco Atzekalea (número 43, hasta su encuentro con la parcela del hotel Oria).

— Por lo demás, con carácter general, se consolidan las condiciones de dominio, incluidas servidumbres de uso/paso público, etc. establecidas en el marco de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de 1989 y sus modificaciones, así como en los documentos promovidos a los efectos del desarrollo y la ejecución de sus previsiones (planeamiento de desarrollo; proyectos de equidistribución de beneficios y cargas; etc.), con la sola excepción de las que resulten incompatibles con las propuestas planteadas en este Plan General.

## 2. Categorización del suelo urbano.

— Los terrenos del (sub)ámbito «13.1 Paseo S. Francisco 37» tienen la condición de suelo urbano no consolidado por carencia y/o insuficiencia de urbanización.

— Los restantes terrenos del Ámbito Urbanístico tienen la condición de suelo urbano consolidado, con la salvedad de los que reúnan las condiciones necesarias para su consideración como suelo urbano no consolidado por incremento de la edificabilidad ponderada.

## V. CONDICIONES SUPERPUESTAS A LA ORDENACIÓN URBANÍSTICA

Se ha de tener en cuenta, a los efectos correspondientes, la presencia del río Oria en las inmediaciones del Ámbito.

## VI. ERAIKUNTZAK ETA/EDO ELEMENTU BEREZIAK KATALOGATZEKO BALDINTZAK

— Zezen Plaza eta Telefonica konpainiaren eraikina –Nafarroa etorbidean, Laskoain kalearekin kantoia osatzen– hirigintza-ondare katalogatuaren parte dira, haien ondare eta kultura arloko balioagatik.

— Horrez gain, eta aditzera emandakoaren ildotik, bidezkoa irizten den guztietan, San Frantzisko Pasealekuko 33 zenbakiko eraikineko fatxadak mantendu eta zainduko dira, betiere bertan proiektatutako eraikuntza-garapen berriarekin bateragarria bada.

## VII. GAUZATZEKO BERARIAZKO ERREGIMENA

### 1. Urbanizazio-erregimena.

#### A. «13.1 San Frantzisko Pasealekua, 37» (azpi)esparrua.

Urbanizazio-proiektua landuko da, planteatutako hirigintza-antolamendua zehazteko eta gauzatzeke. Proiektu horren edukiak arlo horretan indarrean dagoen legeriak ezartzen duena beteko du, baita Plan Orokor honetan eta dagokion Urbanizatzeko Jardun Programan ezartzen dena ere.

#### B. «a.20.1/13» lursaila (Laskoain kalea, 5) eta ingurunea.

Urbanizazio obra osagarrietarako proiektua landuko da, planteatutako hirigintza-antolamendua zehazteko eta gauzatzeke.

### 2. Hirigintza-antolamenduekin bat ez datozen eraikuntzak.

— Antolamenduz kanpo deklaratu dira «13.1 San Frantzisko Pasealekua» (azpi)esparruan eta Laskoain kaleko 5 zenbakiko lursaillean dauden eraikuntzak.

— Plangintzarekiko desados deklaratu dira (2006ko ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 101.3.b. artikulua):

\* Zumalakarregi kalearen 4 eta 5 zenbakietan kokatzen diren eraikinen atzealdeari atxikitako altuera txikiko eraikinen zatiak.

\* San Frantzisko kalearen 3 zenbakiko eraikinaren parte den altuera txikiko gorputza.

\* Zumalakarregi kalearen 2 zenbakiko lursailaren atzealdean dagoen eraikuntza, 1989ko Arau Subsidiarioetan horri dagokionez ezarritako aurreikuspenak finkatuz –lursailaren zati hori espazio libre eraikiezintzat jotzen da–.

### 3. Gauzatzeke erregimen juridikoa eta hirigintza alorrekoa.

#### 3.1. Jarduteko baldintzak.

##### A. «13.1 San Frantzisko Pasealekua, 37» (azpi)esparrua.

Jardun integratuko esparru bakarra eta independentea osatzen du berez (azpi)esparru honek.

##### B. «a.20.1/13» lursaila (Laskoain kalea, 5).

Planteatutako garapena gauzatzean, zuzkidura-jardunen berezko baldintzei jarraituko zaie.

#### 3.2. Urbanizatzeko Jardun Programak formulatzeko eta programatzeko berariazko baldintzak

Plan Orokor hau onartu eta lau urteko epearen barruan formulatu beharko da «13.1. San Frantzisko pasealekua, 37» azpiesparruak osatutako jardun integratuko esparruan sustatu beharreko Urbanizatzeko Jardun Programa.

## VI. CONDICIONES DE CATALOGACIÓN DE EDIFICACIONES Y/O ELEMENTOS SINGULARES

— La Plaza de Toros y el edificio de la Compañía Telefónica, situado en la Avenida de Navarra, esquina con la calle Laskoain, forman parte del patrimonio urbanístico catalogado, en atención a su valor patrimonial y cultural.

— Complementariamente, conforme a lo expuesto, siempre que se estime oportuno, se procederá al mantenimiento y preservación de las fachadas de la edificación existente en el número 33 del Paseo San Francisco que resulten compatibles con el nuevo desarrollo edificatorio proyectado en el mismo.

## VII. RÉGIMEN ESPECÍFICO DE EJECUCIÓN

### 1. Régimen de urbanización.

#### A. (Sub)ámbito «13.1 P.º San Francisco 37».

Se procederá a la elaboración de un proyecto de urbanización a los efectos de la determinación y ejecución de la ordenación urbanística planteada. Su contenido se ajustará a lo establecido tanto en la legislación vigente en la materia y en este Plan General, como en el correspondiente Programa de Actuación Urbanizadora.

#### B. Parcela «a.20.1/13» (calle Laskoain n.º 5) y entorno.

Se procederá a la elaboración del correspondiente proyecto de obras complementarias de urbanización a los efectos de la determinación y ejecución de ordenación urbanística planteada.

### 2. Edificaciones disconformes con la ordenación urbanística.

— Se declaran fuera de ordenación las edificaciones existentes en el (sub)ámbito «13.1 P.º S. Francisco» y en la parcela de la calle Laskoain n.º 5.

— Se declaran disconformes con el planeamiento (artículo «101.3.b» de la Ley de Suelo y Urbanismo de 30 de junio de 2006):

\* La parte de las edificaciones de baja altura adosadas a las traseras de los edificios ubicados en los números 4 y 5 de la calle Zumalakarregi.

\* El cuerpo bajo que forma parte del edificio ubicado en el número 3 de la calle San Francisco.

\* La edificación existente en la parte trasera de la parcela número 2 de la calle Zumalakarregi, consolidándose las previsiones establecidas a ese respecto en las Normas Subsidiarias de 1989, en las que esa parte de la parcela se considera como espacio libre no edificable.

### 3. Régimen jurídico-urbanístico de ejecución.

#### 3.1. Condiciones de actuación.

##### A. (Sub)ámbito «13.1 P.º S. Francisco 37».

Este (sub)ámbito conforma en sí mismo un único e independiente ámbito de actuación integrada.

##### B. Parcela «a.20.1/13» (calle Laskoain n.º 5).

La ejecución del desarrollo planteado se entenderá sujeta a las condiciones propias de las actuaciones de dotación.

#### 3.2. Condiciones específicas de programación y de formulación de Programas de Actuación Urbanizadora.

